

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturearen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Epikuro

**ZORIONTASUNAREN
DEFENTSAN**

Epikuro

ZORIONTASUNAREN DEFENTSAN

Itzulpena eta sarrera: Jonathan Lavilla, Javier Aguirre
Hitzaurrea: Pierre Hadot



katakarak
liburuak

Jatorrizko izenburua: *Κύρια δόξα, Επίκουρος Μενουκῆ χαίρειν* eta
Les modèles de bonheur proposés par les philosophes antiques

Egilea: **Epikuro**

Jatorrizko lizentzia: **Domeinu publikoa**

Itzulpena eta sarrera: **Jonathan Lavilla, Javier Aguirre**

Hitzaurrea: **Pierre Hadot**

Barruko argazkia: **1931an egile ezezagun batek Argentinako indigenei [domeinu publikoa]**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: **2023ko martxo**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Liburu hau itzulpen lan militanteari esker argitaratu da

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako dirulaguntza bat jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomentziala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopianu, zabaldu eta jendartearen erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-83-9

Lege gordailua: NA 607-2023

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
SARRERA (Jonathan Lavilla, Javier Aguirre).....	13
HITZAURREA (Pierre Hadot)	29
MENEKEORENTZAKO GUTUNA	47
IRITZI NAGUSIAK	63
BIBLIOGRAFIA HAUTATUA	81





ARGITALETXEAREN OHARRA ZORIONTASUNA AUTOSUNTSITZEAREN GARAIAN

*Eta tristuraren industriak zuretzat sortuak dituen
ansiolitiko eta kantuak, makrobiotika eta liburuak,
konstelazio eta terapiak, sare sozialak eta farmaziak,
zure melankoli burgesa bezatzen dutenak
dena duzu
dena duzu galtzeko*

Anari Alberdi Santesteban

*Arimek biak jasan behar omen dituzte, hala sufrimendua nola
zoriona; are, batik bat, sufritu egin behar izango dute, sufritzea
premiazkoa baita izaera osatzeko. Psikeek, ordea, sufrimendua
ezabatu behar dute, edo, behinik behin, eta bestela esanda,
sufritud gero, zerbaiten seinaleztat hartuko dute sufrimendua,
zerbait deszifratu eta landu beharraren seinaleztat*

Eva Illouz

Galdera zilegia da: zertara dator, duela hogeita hiru mendetako filosofoen testuen bilduma bat egungo munduak dituen auzi eta gatazkak pentsatzeko liburuak ekarri ohi dituen bilduma batera? Erantzun posibleetako bat da badirela garaiaren eta tokiaren zirkunstantziatik libre dauden testuak, edonon, edonoiz, pertinentekak direnak gizakiaren berezkotasunarekin dutelako lotura. Pentsa daiteke zoriontasuna dela kontzeptu horietako bat

zeinaren atzean dagoen historiatic kanpoko errealitate partekatu bat edonon eta edonoiz ulertuko dena, gauza bera esan nahi duela edozein baldintzetan.

Bada ez, bilduma honetan ekarri genuen Eva Illouzen *Arimaren etorkizuna. Estandar emozionalen sorrera* liburua da horren adierazgarri: egungo zorientasuna, egungo emozioa, kapitalismoaren garai honetakoa eta Epikurok desiratu zuena antipodetan daude. Baina, agian horregatik, Epikurok planteatzen duen zorientasunaren defentsak, laguntasunarenak, elkar-zaintzarenak, ongi bizitzearenak, gogoetarako elementu aberatsak ekartzeaz gain, planteamentu iraultzaileak ere ekar ditzake.

Liburu llabur honetako testuek hamaika irakurketa sortu dituzte honezkero, horregatik, liburu hau irakurtzeko moduetako bat, sarrera eta hitzaurrea amaierarako uztea da, zuzen-zuzenean Epikuro entzutea, zertaz ari garen ulertzeko. Eta gerora irakurri Jonathan Lavilla eta Javier Aguirre itzultzaileek egin duten sarrera mardula eta Pierre Hadotek egin zuen ainguratzea Epikuroren garaiko zorientasunari buruz.

Epikuroren lerroetan bada askapenerako lerro bat baino gehiago (zerbaitengatik aztertuko zuen Karl Marx gazteak Epikuro bere doktoretza tesian): bizitzari zer eskatzen diogun, gertukoei, nola bizi dugun galera eta mina, nola eusten diogun garamatzen gorputzari, zenbat esijitzen diogun gizateriari.

Esku artean duzu tristuraren industriari aurre egiteko liburu bat, autolaguntzaren iruzurretatik auzolaguntza lantzeramango zaituena eta, bidean, pentsalari handi bati buruzko hamaika ñabardura izango dituzu eskura, aspaldiko Greziatik ekarriak.

Iruña

2023ko otsaila

SARRERA

Le futur désenchanté l'heure présente

André Gide, *L'immoraliste*

Autore eta korrante desberdinen aurkezpen egokia egiteaz gain, filosofiaren historiak bete behar duen zeregin garrantzitsua da topiko eta uste faltsuak ezerezten saiatzea. Epikuroren kasuan, jakina da, bate-tik, bere sinadurarekin heldu zaizkigun obrak ez direla ez bereziki luzeak ez eta oso ugariak ere, eta, bestetik, hedonismoaren defentsa sutsua egin zuela. Datuok zuzenak izan arren, euren irakurketa okerra oso zabalduak izan diren bi uste faltsuren abiapuntua izan da: 1) Epikuro autore arina da, bere gogoetak azalekoak dira eta bere pentsamendua ez da sistematikoa edo orohartzailea; 2) Epikurok plazer fisikoen etengabe-ko bilaketarekin lotutako bizimodua proposatzen du. Bada, sarrera honen asmo nagusietako bat izango da, hain zuzen, Epikuro aurkezteaz gain, bi iritzi oker horiek deuseztatzea.

Bi atenastarren semea izanik, Epikuro ere atenasar hiritarra izan zen. Edonola ere, Epikuro Samoseko uhartean jaio zen o.a.a. 341. urtean, bere gurasoak atenasar kolonoak zirelarik, eta bertan bizi izan zen 323. urtera arte. Hain zuzen, hemezortzi urte betetzera, Atenasera joan zen estreinako, *zerbitzu militar* moduko bat —*ephebeía*— bete eta atenasar hiritartasuna lortzeko. Badirudi bi urte geroago, 321. urtean, Samosetik atenasar kolonoak egotzi zituztenean, bere gurasoak Kolofonera lekualdatu zirela eta Epikurok haiengana jo zuela. Kolofoneko egonaldia oso emanorra izan zen, bereziki, bertan Nausifanes filosofo demokritearrari esker dotrina atomista landu zuelako, bere planteamendu filosofikoan pisu erabakiorra izan duena. Antza, hamar urte geroago, 311. urte inguruan, Lesboseko uharteko Mitilene hirira abiatu zen lehendabizi eta, urte batzuk geroago, Lampsakora; bi hiriotan bere dotrina propioak irakasten hasi zen. 307. urtean, Atenasera itzuli zen eta bertan bizi izan zen 270. urtean hil arte. Bere bizitzako azken aldi horretan, Atenasera iritsi eta handik gutxira, Epikurok lursail bat erosi eta bertan sortu zuen *Lorategia*, hots, bere eskola. Lorategian Mitilenen eta Lampsakon hasitako programarekin jarraitu zuen, bere filosofia zabalduz eta jarraitzaileak bereganatuz. Lorategia eskola filosofikoa izateaz gain, lagun komunitatea ere bazen, zeinetan lagunartean eta konfidantza osoan lasai eta ahalik eta zoriontsuen bizitzen ahalegindu ziren, elkarrekin filosofatzen eta elkarri laguntza eskainiz.

Epikuroren pentsamendua, beraz, antzinako Greziako garai helenistikoan kokatzen da. Garai helinistikotzat jo ohi da Alexandro Handiaren heriotzatik (323. urtea) Erromatar Inperioaren eraketa fasera arte (gutxi gorabehera o.a.a. 31. urtea) luzatzen den aldia.

Alexandro Handiaren konkisten eta mazedoniar inperialismoaren eskutik bere une politiko boteretsuena bizi ostean, Greziak oso garai gorabeheratsua biziko du. Mazedoniar inperialismoak hiri-estatu tradizionalen egitura desagertarazi zuen; ordea, Mazedoniar erreinuak ez zuen luze iraun. Alexandroren heriotzaren ostean, inperioa zatikatu zen eta eskualde desberdinak buruzagi gutxi batzuen —hots, *diadokoen*— esku geratu ziren, euren artean liskar eta borroka ugari sortuz. Hiri-estaturen mundu tradizionalaren eta inperio handiaren desargertzeak ezegonkortasun eta ziurgabetasun politikoa eragin zuen, zeina hiritar askok asalduraz eta kezkaz beterik bizi izan zuten.

Garai helenistikoa politikoki ezegonkorra izan arren, ezin da esan intelektualki dekadentea izan zenik. Aitzitik, Alexandriako liburutegi ospetsua sortzeaz gain, garai hartan besteak beste eragin sozial handiko hainbat eskola filosofiko sortu ziren; horien artean ezagunetarikoa zinismoa, estoizismoa eta epikureismoa ditugu. Bada, hein handian, eskolok testuinguru berriak eragindako arazoei irtenbidea emateko saiakeratzat sortu ziren. Horren isla da hala nola euren kezka nagusi eta komuna: *bizimodu ona* zertan den zehaztu eta zoriontsu bizitzeko gakoak eskaintzea. Funtsean, eskola horiek filosofia eta jakituria zoriontasunarekin lotu zuten, izan ere, jakintsua izatea, funtsean, ongi eta zoriontsu bizitzen jakitean datza. Eskolok, bakoitzak bere aurreiritzi eta ñabardurekin, bizitza onerako gakoak eskaini zituzten, eta horietan guztietan (arimaren) *lasaitasuna* eta *autarkia* kontzeptu funtsezkoak izan ziren: antzinako balioak eta instituzioak amildu diren garaian, ziurgabetasuna nagusi denean, premiazkoa da banakoa ahal bezain autarkikoa izaten eta lasaitasunez bizitzen jakitea.

Eskola helenistikoek, hortaz, *sendagai*¹ moduko bat eskaini nahi diote gizakiari bere eguneroko oina-zeak eta kezkek apaldu eta gainditu ditzan, hau da, zoriontsu bizi dadin. Sendagai hori filosofia bera baino ez da. Horregatik, filosofia helenistikoaren atalik garrantzitsuena etika dugu. Hain zuzen ere, joera hori oso nabarmena da epikureismoan. Epikuroren filosofia hiru ataletan banatzen da: *kanonika* —hau da, *ezagutzaren teoria*—, *fisika* —hau da, *natur zientziak*— eta etika —hau da, *bizitza onaren artea*—. Ordea, etika da hiruen ardatza eta helburua. Funtsean, ezagutzaren funtzionamenduaren eta naturaren inguruko ikerketak baliozkoak dira soilik hobe bizitzera eramaten gaituztelako. Hain zuzen, giza ezagutza aztertzeak posible egiten digu egiazkoa eta faltsua dena irmoki bereiztea; halaber, bereizketa horri esker posible da natura —errealitatea— eta bere funtzionamendua ezagutzea. Azkenik, fisika eta etikari esker arima asaldatzen duten eta, beraz, giza sufrimenduaren kausa diren superstizio eta iritzi ustelak ezereztzen dira.

Epikuroren kanonika eta fisika Demokritoren eta Leuziporen atomismoan oinarritzen dira. Mundua zatiezinak eta aldaezinak diren atomoek osatzen dute. Gauza guzti-guztiak —baita jainkoak edota gizakion arimak ere— aipatutako atomoen mugimendu eta bateratzeek sortzen dituzte; era berean, gauzen deuseztatzea eta bilakaera ez da atomoen bateratze-ko modu jakin batean gertatzen diren aldaketak baino, edo, zuzenean, bateratze jakin baten disolbatzea.²

1 Ik. *tetrafarmakoaren* kontzeptua Epikuroren 47. oin-oharrean.

2 Hau da, gauzak ez dira ezerez absolutotik eratzen —ezer ezin delako erabateko ez izatetik sortu— edo ezerez absolutuan bilakatzen; aitzitik, mundua *atomoek* eta *hutsak* osatzen dute, eta munduko eraldaketa guztiak —sorkuntza eta deuseztatzea barne— atomoek espazio hutsean pairatzen duten mugimendu, talka, bateratze eta disolbatzearen ondorio baino ez dira.

Atomo mota desberdinak daude, baina guztiek euren berezko joera dute eta halabeharrez mugitzen dira. Alabaina, Epikuroren atomismoaren berezitasun nabarmenetakoa da, hain zuzen, euren halabeharrezko mugimendu eta joeran, atomoek aurreikusi ezina den *desbideratzea* —grekeraz *parénklisis* eta latineraz *clina-men*— pairatzen dutela. Ideia hori funtsezkoa da, izan ere, Demokritoren eta Leuziporen determinismoa saihesten du. Halabeharra existitzen da; ordea, desbideratzeari esker, halabeharra ez da erabatekoa, zoriak ere bere papera du, eta, batez ere, etikak —ekintza onaren eta okerraren inguruko hausnarketak— zentzua du: halabehar erabatekoa existitzen ez den heinean, gauza batzuk gure esku daude.³ Hain zuzen, Epikuroren irakaspen etikoak gure esku dauden gauzetan ipiniko du fokua; hala nola desiren kudeaketan, komunitate formetan eta giza konbentzioetan.

Teoria atomistarekin bat, Epikurok uste du gure ezagutzaren printzipio nagusia eta, beraz, ezagutzaren irizpide garrantzitsuena, *sentsazioa* —edo esperientzia— (*aísthesis*) dela.⁴ Objeto guztiak atomoz osatzen dira; bada, objetuek atomo bereziki fin batzuk —partikulak— askatzen dituzte eta gauzen partikula-jario horiek izaki bizidun batek sentitzen dituenean, hots, bere zentzumenekin talka egiten dutenean, beregan irudiak (*týpoi*) edo errepresentazioak (*eídola*) uzten dituzte, zeinak ezagutza ororen abiapuntua baitira. Irudion errepikapenari eta oroimenari esker, *aurreulerkerak* (*prolépseis*) sortzen ditugu, zeinak zentzumenek jasotako irudiak bezala, egiazkoak baitira. Aurreulerke-

3 Errealitate guztia erabat determinaturik balego, hots, halabehar hutsa existituko balitz, ekintza on eta ekintza okerreren arteko bereizketak eta gogoetak ez luke zentzurik, izan ere, gizakiak halabeharrez jokatu luke beti, hots, kanpo-kausa batek eraginda.

4 Zentzu horretan, posible da esatea, nolabait, Epikuro enpirista dela.

rak, era berean, hizkuntzaren bidez errepresentatzen ditugu. Adibidez, hainbat gizaki zehatzen irudia jaso ostean, gizakiaren aurreulerkera eratzen dugu eta aurreulerkera hori «gizaki» hitzarekin errepresentatzen dugu.⁵ Gauzak horrela, sentsazioak eta aurreulerkerak dira ezagutzaren eta egiaren irizpide garrantzitsuenetarikoak. Badago, edonola, hirugarren irizpide bat, bai etikan, bai politikan funtsezkoa dena: *afekzioa* —edo *pasioa*— (*páthos*). Sentsazioaren eta aurreulerkeraren bidez mundua ezagutzeaz gain, afekzioaren bidez sufrimendua ala plazera bizitzen dugu. Bada, izaki bizidun guztiek plazera bilatzen dutenez eta sufrimendua saihesten saiatzen direnez, argi dago plazera ona dela eta sufrimendua, txarra.⁶ Afekzioari esker, ekintza on eta txarrak bereizteko irizpide bat dugu eta kasuan kasu erabaki onena zer den ebaluatu dezakegu, betiere zoriontasuna lortzeko asmoz. Era berean, zoriontasuna bera irizpide horren bidez ebaluatzen da hein handi batean, izan ere, ahalik eta plazer handiena eta ahalik eta sufrimendu txikienarekin lotzen den bizimodua baino ez da zoriontasuna.⁷ Hain zuzen, horregatik da Epikurorena planteamendua hedonista.

5 Ik. 49. oin-oharra.

6 Kontuan izan afekzioak ere *ezagutza* eskaintzen duela. Esate baterako, afekzioari esker eskua sutan ipintzen dugunean mina bizitzen dugu eta, mina guretzako txarra dela jakinda, bertatik kentzen dugu.

7 Epikurok aldarrikatzen du gizaki orok edozein egoeratan zoriontasuna erdietsi dezakeela, horretarako nahikoa da ezagutza edukitzea, hots, jakintsua izatea. Horregatik adierazten zuen besteak beste jakintsua zoriontsua izango dela, torturatua izan arren eta tormentu hura irauten bitartean garrasi eta negar egin arren (ik. Diogenes Laerzio, X, 118). Edozein kasutan, ulertu beharra dago epikureismoan zoriontasuna ez dela zuri ala beltz, baizik eta graduala: «Zoriontasuna bi modutan ulertzen da: alde batetik, [zoriontasun] gorena, zeina jainkoari dagokion eta handitu ezin dena; bestetik, plazeren handitzearen eta murriztearen [arabera] bizitzen dena» (Diogenes Laerzio, X, 121a). Zentzu horretan, jakintsua edozein egoeratan da zoriontsua, bere esku dauden egoera guztietan plazerak maximizatzen eta atsekabeak minimizatzen baititu, eta, gainera, bere esku ez dagoena halabeharrezkotzat onartzen

Epikurok hedonismoa aldarrikatu zuen. Horregatik,⁸ oso goiz, bera bizi zen garaitik, kalumnia ugariren jomuga izan zen. Adibidez, Epikuro «gorroto zuen Diotimo estoikoak oso bortizki kalumniatu zuen, Epikuroren izenean berrogeita hamar eskutitz lizun argitaratuz» (Diogenes Laerzio, X, 2); era berean, antza, «Epiktetok lizunkerien esatari deitzen du eta erabat iraintzen du. Eta Timokratesek [...], bere [Epikuroren] gehiegikerien ondorioz, [Epikurok] egunean bi bider okagiten zuela» (Diogenes Laerzio, X, 6) esaten zuen eta epikureismoa *gaueko filosofiatzat* eta *elkarte mistikotzat* jotzen zuen. Are zitalago, beste batzuek esaten zuten «bere amarekin etxolaz etxola joaten zela mirakuluzko erremedioak irakurtzera, eta bere aitarekin letrak irakasten zituela soldata ziztrin baten truke; horretaz gain, bere anaietako bat prostituitu zuela, Leontion prostitutarekin ibiltzen zela eta bereak izango balira bezala aurkeztu zituela bai Demokritoren irakaspenak atomoen inguruan bai eta Aristiporenak ere plazeraren inguruan» (Diogenes Laerzio, X, 4). Mihi gaiztoak, beraz, ez ziren mugatu Epikuro txerritzat irudikatzen: plagioa, aztikeria eta bere senideak prostituitzea leporatu zioten. Alabaina, Epikuroren idatziak irakurtzen dituen edonork segituan ikusiko du irainok gaiztoak izateaz gain, faltsuak direla. Hori ulertze aldera, premiazkoa da honakoa argi edukitzea: Epikurorentzat plazeraren, lehenik eta behin, sufrimendurik ez paira-

baitu. Ordea, onartu beharra dago baldintzek zeresana dutela bere zorientasunaren mailan.

- 8 Kontuan hartu behar da tradizio filosofikoak, Platonek eta Aristotelesek kasu, plazeraren bizimodua gogor gaitzetsi zutela, animalien eta txerrien bizimoduaren parekoa zela iritzita. Tradizio filosofikoaz gain, etxe oneko hiritar gehienek antzeko iritzia zuten plazeraren funtsatutako bizimoduarekiko, izan ere, ohiko ustea zen hiritar on batek izen onaren —famaren—, botere politikoaren eta loriaren bila ibili behar zuela eta ez, aldiz, plazeraren atzetik.

tzean datza; plazerik handiena, hortaz, ez sufritzea da.⁹ Horregatik, Epikuroren planteamenduan plazer garrantzitsuenak plazer egonkorrak —edo *katastematikoak*— dira, hots, gorputzaren gabeziarik eza (goserik eza, egarririk eza eta hotzik eza kasu) eta arimaren lasaitasuna. Gainerako plazerak, mugimenduzkoak —edo plazer zinetikoak— kasu (besteak beste otordu oporoen, sexuaren edo luxuaren plazerak), bigarren maila batean ipintzen ditu eta ezin dute sufrimendurik ezan datzan plazera gainditu, baizik eta, gehienez jota, plazer hura koloreztatu edo aberastu.¹⁰ Hala izanik, Epikurok arimaren plazera gorputzaren plazeraren gainetik kokatzen duela ikusita eta gorputzaren plazer egonkorrak mugimenduzko plazer bizien gainetik irizten dituela, argi dago epikurear hedonismoa oso berezia dela eta bere planteamendua *gaueko filosofia*-tzat edo *filosofia lizunkoitzat* hartzea gaiztakeriaren edo ezjakintasunaren ondorio baino ez dela.¹¹

Dagoeneko argiago ulertu daiteke kanonikak eta fisikak duten garrantzia. Sentsazioaren eta arrazoimenez bidez mundua egoki ezagutu eta ebaluatuz gero, agerian geratzen da oso erraza dela zoriontsu izatea, hots, gure bizimodua sufrimendutik askatzea.¹² Beste

9 Ik. hirugarren *Iritzi nagusia*.

10 Epikurok «berak esaten du bere gutunetan ur hutsarekin eta ogi arruntarekin aski zuela» (Diogenes Laerzio, X, 11).

11 Zentzu horretan, interesgarria da Epikuroren eta eskola zirenariarren hedonismoak kontrajartzea. Ik. itzulpeneko 59. oin-oharra.

12 Gauzak horrela, nolabaiteko intelektualismoa atzeman daiteke Epikurorengan, izan ere, «behin norbait jakintsu bilakatuta, ordutik aurrera ez du ez [jakintsuaren] kontrako jarrerarik edukiko ez eta horren plantak egingo» (Diogenes Laerzio, X, 117). Errealitatea eta bizitza sentsazio, aurreulerkera eta afekzioen arabera irakurri eta ebaluatzen duen horrek, hain zuen, ongi jokatuko du beti eta zoriontsua izango da, hots, bere esku dagoen heinean plazerik handiena eta sufrimendurik txikiena biziko ditu. Gainera, harmonia osoan bizi denez —bere ekintzak, gogoetak eta desirak bat etortzen direnez—, epikurear jakintsua ez da inoiz kontraesanean eroriko: «lo dagoenean ere era berekoa mantenduko

era batera esanda, Epikurok aldarrikatzen du, batetik, gizakiak naturatik aise eskuratu ditzakeela gorputza oinazetik libre mantentzeko baliabideak¹³ eta, bestetik, giza atsekabe askoren kausa uste faltsuak eta desira desegokiak diren heinean, arrazoinamenduari esker erraz deuseztatu daitezkeela atsekabe horiek. Bada, hedonista izanagatik ere, Epikurok ez ditu inondik ino-
ra plazer guztiak gomendatzen. Haren aburuz, edozein plazer berez da ona eta edozein sufrimendu, txarra. Hala ere, badira sufrimendu batzuk luzera begira oina-
ze baino atsegin handiagoa sorrarazten dutenak¹⁴ eta, aldiz, plazer batzuk gerora atsegin baino oinaze han-
diagoa sortzen dutenak.¹⁵ Horregatik, ez da plazer oro bilatu behar; aitzitik, plazer ugari baztertu beharrekoak dira, hain zuzen, bizitza zoriontsuagoa edo atsegina-
goa egite aldera. Arrazoimenak paper erabakiorra du, plazeren gaineko ebaluazio egokia egin behar duela-
ko. Halaber, desirak ere ebaluatu behar ditu. Gizakiak desira mugagabeak —infinituak— ditu, baina bizi-
tza bera mugatua da¹⁶ bai eta desira guztiak asetzeko ditugun gaitasunak ere.¹⁷ Horregatik, gure desiren gai-
neko entrenamendu —aszesi— irmoa beharrezkoa da, asegabeko desirek gure bizitza sufrikario bihurtu ez

da» (Diogenes Laerzio X, 121b).

13 Ik. hamabosgarren *Iritzi nagusia*.

14 Adibidez, desiren mugatzea hasiera batean mingarria den arren, gerora bizitza atseginagoa egingo du, beharrezkoak ez diren premiekiko askatzen eta autarkikoagoak egiten baigaitu. Zentzu horretan, gogoangarria da Epikuroren ondoko aholkua: «Pitokles aberatsagoa egin nahi baduzu, ez ezazu bere diru kopurua handitu; aitzitik, murriztu itzazu bere desirak» (Usener, 153. fragmentoa = Johannes Stobaeus, *Anthologium*, III.XVII.24).

15 Adibidez, luxuarekin lotutako plazeretara ohitzen den pertsona bati dagokionean, luxu horiekiko menpekotasunak arazo zein atsekabe handiak sorraraziko dizkio.

16 Hau da, gizaki baten bizitzak denbora finitua irauten du.

17 Adibidez, hilezkorra izatea desira dezaket, baina ez dut hori lortzeko gaitasunik.

dezaten. Epikuroren arabera, desiren artean batzuk naturalak dira eta beste batzuk, aldiz, hutsalak.¹⁸ Desira naturalen artean, batzuk beharrezkoak dira¹⁹ eta beste batzuk, naturalak soilik.²⁰ Bada, Epikuroren proposamena honakoa da: naturalak eta beharrezkoak diren desirak asebetete behar ditugu; naturalak diren baina beharrezkoak ez diren desirak mugatu behar ditugu;²¹ eta hutsalak diren desirak baztertu eta gugandik ezabatu behar ditugu. Horrela jokatzeko duen pertsona libre egongo da, bada, uste oker askok, desira hutsalak eta desira ez beharrezkoak sorrarazten dituzten ha- maika sufrimendutik.

Kanonikak eta fisikak, beraz, gizakiengan sufrimendu hutsalak sorrarazten dituzten hainbat desira eta uste okerretik —superstizioetatik— libratzeko balio dute. Azken horien artean, Epikurok gizakia jainkoen inguruko ikarez askatu nahi du: jainkoak ez dira gi-

18 Desira hutsalaren objektuak dira gizakiari ez dagozkion helburuak (hilezkortasuna kasu) edo iritzi okerrek finkatu dituzten horiek, giza premia funtsezkoak asetzeko balio ez dutenak eta asaldura iturri direnak (besteak beste fama, botere politikoa eta aberastasun handien desirak).

19 Desira natural eta beharrezkoak, bada, zoriontsuak izateko, ongizate fisikoa edukitzeko, lasai bizitzeko eta oro har bizirauteko behar-beharrezkoak diren desioak dira. Kontuan hartuta zoriontasuna hein handian sufrimendurik eza dela, Epikuroren kasuan desira horiek asetzen errazak dira. Desira natural eta beharrezkoen adibide dira gosea eta egarrira ekiditeko jaki eta edari xeheak (ura eta ogia kasu) eta segurtasuna.

20 Desira natural baina ez beharrezkoak dira, adibidez, otordu oparo edo gozoekiko grina eta apeta sexuala.

21 Epikurok ez du gaitzesten otordu oparoez edo gozoez noiz edo noiz gozatzea. Gogoangarria da, adibidez, lagun bati behin idatzi ziona: «bidal ieza dazazu gazta zatitxo bat, nahi dudanean nire buruari luxu handiko jaki bat oparitu diezaiodan» (Diogenes Laerzio, X, 11). Ordea, plazer horietara ohitzeak menpekotasuna eragiten duen heinean eta menpekotasun hori asebetetzea zaila eta oinaze iturria izan daitekeen heinean, Epikurok horrelako desirak ahal bezainbeste mugatzea gomendatuko luke. Berriz ere, agerikoa da sufrimendurik eza dela hedonismo epikurearraren bereizgarri nagusia; ez haatik parranda eta luxu handiekin lotutako hedonismoa.

zakioz arduratzen eta ez dute gure bizitzetan inolako eraginik,²² giza mundutik erabat kanpo ibiltzen diren izaki hilezkor eta bikainak baitira; dena den, zoriontsuak diren heinean, jainkoak jakintsu epikurearren *eredutzat* jo daitezke. Kanonikari eta fisikari esker ere, gizakiok heriotzari diogun beldurra ezabatu nahi du Epikurok. Izan ere, plazera ona den horren irizpidea bada eta sufrimendua, aldiz, txarra denarena, ondorioztatu beharra dago heriotza ez dela ezer guretzat, izan ere, haren esperientziarik ez dugu. Bizi garen heinean heriotza ez dago presente eta heriotza heltzen denean, aldiz, dagoeneko ez gara existitzen.

Bestalde, bere jakituriari esker, jakintsu epikurearrak badaki desberdintzen, alde batetik, komunitateetan garrantzitsuak diren eta zaindu beharrekoak diren gauzak eta, bestetik, hutsalak eta kaltegarriak diren praktikak. Hasteko, Epikurok uste du gizakiak eskarmentuari esker ikasi eta bere bizimodua hobetu dezakeela. Komunitate politikoa horren isla litzateke: gizakiak konturatu egiten dira elkarrekin bizitzeak eta kooperazioan aritzeak euren premiak hobe eta errazago asetzea posible egiten duela eta segurtasuna eskaintzen diela. Komunitatearen zentzua, beraz, argia da: komunitate politikoa —edo, oro har, gizartea— gizakiak sortu duen instituzio da, hain zuzen, banako bakoitzaren bizitza atseginagoa —sufrimendu gutxiagokoa— egite aldera. Beraz, komunitate bat ona izango da soilik baldin eta helburu horri begira jokatzen badu. Gauzak horrela, lege eta konbentzio sozialen egokitasuna juzkatzeko irizpidea argia da: banakoei eta elkarbizitzari mesede egiten badiete, onak izango dira; bestela, desegokiak. Zentzu horretan ere,

22 Beraz, Epikurok bere garaiko erlijio tradizionalarekiko oso bestelakoa den ikuspegi bat darabil.

justizia ez da errealitate natural edo berezkoa, giza konbentzio bat baizik.²³ Justua da, hain zuzen, komunitate batek unean une kolektiboaren ongizaterako onuragarritzat jotzen duena; eta elkarbizitzari eta banakoei kalteak eta sufrimendua eragiten diena, aldiz, injustutzat jo beharko du. Beste behin, agerikoa da etikan zein politikan gakoa jakiturian datzala: giza natura eta errealitatea ezagutu behar dugu, hain justu, ahalik eta zorientsuen biziaraziko gaituzten instituzio eta baldintzak sortzeko. Iritzi eta desira okerrekin, nola ez, esparru politikoan hamaika gaitz sortu ditzakete eta ezagutzari esker horien kontra jo beharko genuke.

Epikureismoan komunitate politikoak eginizun garrantzitsua badu ere, are garrantzitsuagoa da *laguntasunak* eta lagun-elkartek (lagun-elkarte epikurearrak) jokatzeko duten papera. Epikuroren garaian, hiri-estatu tradizionala eta bere instituzioekiko konfindantza krisian daude; gainera, agerikoa da komunitate barruan etengabe sortzen direla sufrimendu iturri diren tentsio, injustizia eta borroak. Horregatik, zorientasun ahalik eta beteena lortzeko ahaleginetan, epikurearrek adiskideen komunitateak osatzen dituzte eta horietan babesten dira, helburu argi batekin: adiskide guztiak kooperazioan aritzea komunitateko kide bakoitza lagunduz, hots, sufrimendua ahal bezainbeste txikituz eta plazera ahal bezainbeste handituz. Gauzak horrela, laguntasuna ongi preziatuenetarikoa da epikurearrentzat,²⁴ banakoen artean loturarik sendoena eragiten duelako eta bizi baldintzak hobetzen laguntzen duelako. Hain zuzen, Epikuroren eskola, Lorategia, lagun-komunitate bat zen, non kide guztiek elkarri babesa eta laguntza eskaintzen zioten.

23 Beraz, Epikurorengan presente dago *hitzarmen sozialaren* ideia.

24 Ik. hogeita zazpigarren eta hogeita zortzigarren *Iritzi nagusiak*.

Giro horretan, ezagutza ardatz edukita, eta jatorriaren, klase sozialaren eta generoaren araberrako inolako bazterkeriarik gabe,²⁵ Epikuro lagunartean bizi izan zen Lorategian, bere filosofia garatzen eta, harekin, aldamenekoak laguntzen saiatuz.

Epikuroren obraren euskarazko bertsiio berri honetan, gure sarreraz eta Pierre Hadoten hitzaurreaz gain, *Menekeorentzako gutuna* eta *Iritzi gorenak* jaso ditugu, etika-testuak alegia. Edozein kasutan, argi eduki dezala irakurleak Samosen jaiotako filosofoaren obra erraldoiaren lagin txiki bat baino ez direla. «Epikuro idazle bereziki oparoa izan zen, *beste autore guztiek baino liburu kantitate handiagoa idatziz*, hain zuzen, bereak diren *hirurehun papiro-biribilki* inguru badaude; gainera, bertan ez da bestelako autoreen aipurik jasotzen, baizik eta Epikuroren esanak soilik».²⁶ Tamalez, Epikuroren idatzi gehienak ez zaizkigu iritsi. Obra oparo eta zabal hura —hala nola hogeita hamazazpi liburuz osatutako *Naturaren inguruan*— bidean galdu da.²⁷ Zorionez, ordea, o.a. III. mendeko doxografo Epikuro-zale bati esker, Diognes Laerziori esker, bere filosofiaren nondik norako garrantzitsuenak eta bere obra gutxi batzuk heldu zaizkigu. *Iritzi gorenez* eta bestelako aipu txiki batzuek gain, Diogenes Laerziok Epikurok idatzitako hiru gutun

25 Esanguratsua da epikurearrek izan zuten izaera sozialki aurrerakoia kontuan hartzea. Euren gizartean —baina baita beste hainbat filosofia eskolatan ere, Lizeoan kasu— oso errotuta zeuden zenbait bazterkeria mota arbuaiatu zituzten. Zentzu horretan, aipagarria da Lorategiko lagun-elkartea hiritar askeez gain, besteak beste atzerritar, esklabo eta prostitutez osatzen zela.

26 Diogenes Laerzioren, X, 26. Letra etzana gurea da.

27 Diogenes Laerziok jasotako berri eta testuez gain, bestelako eskuizkribu— *Sententiae Vaticanae* kasu— eta autore gutxi batzuen —besteak beste Plutarkoren eta Sexto Enpirikoren— hainbat aipu eta berri labur jaso ditugu. Aipatu beharra dago, edonola ere, epikurear dotrinaren azalpen luze, oparo eta ederrena epikurear olerki erromatar baten eskaintzen dela, Lukrezioren *De Rerum Natura* ospetsuan, alegia.

oso-osorik jaso zituen: *Herodotorentzako gutuna*, *Pitoklensentzako gutuna* eta *Menekeorentzako gutuna*. Gutunok epikurear dotrinaren laburpenak baino ez dira: lehen-dabizikoak epikurear fisika laburtzen du, bigarrenak, astronomia eta hirugarrenak, etika (Diogenes Laerzio, X, 28). Antza, Epikurok «bere ikasleak trebatzen zituen berak idatzitako testuak buruz ikas zituzaten» (X, 12) eta laburpenok horretarako baliabide bereziki egokitzat jo ditzakegu.²⁸ Beraz, kontuan izan dezala irakurleak Epikuro ez dela azalpen luzeak eta astirotsuak saihesten dituen idazlea; aitzitik, bere gutunen natura sintetikoa testu horien izaeraren eta helburuaren ondorio baino ez da.²⁹ Era berean, izan dezala kontuan irakurleak Epikuroren gogoeten, esanen eta idatzien asmoa, funtsean, bizitza onaren edo zorientasunaren helburura bideratzen direla. Horregatik, estilo eder eta ponposoa baino, argitasuna lehenesten duela. Antza, Epikurorentzat idatzien argitasunak horren garrantzia handia zuen, ezen «bere Erretorikari buruzko tratatuan justutzat jotzen duen argitasuna baino ez eskatzea» (X.13). Hau da, Epikuroren aburuz, jakintsuarengandik «hitzaldi ederrak» baino, hitzaldi argiak espero behar dira (Diogenes Laerzio, X, 118).

28 Ematen du, beraz, Epikuroren ustez ongi bizitzeko ez dela behar-beharrezkoa ikerketa sakon eta konplexuetan trebatzea (*pace* Platon), baizik eta gako teoriko gutxi baina tinko batzuk barneratzearekin nahikoa litzatekeela ongi bizitzen hasteko. Zentzu horretan ere, gako teoriko horiek buruz ikatea oso aproposa litzateke.

29 Esanguratsua da, zentzu horretan, gogoan edukitzea Diogenes Laerziok (X, 2) jasotzen duen ondoko berria: «Filosofian jardun zen behin bere maisuekin desengainua hartu zuenean, zeinak ez ziren gai izan Hesiodoren Kaos-aren zentzua azaltzeko». Epikurok poesiatik filosofiarantz egin zuen salto, hain zuzen, *azalpenak* nahi zituelako. Bada, idatzi omen zituen hirurehun papiro-biribilkietan, ziur aski, horretan aritu zen, filosofian, hau da, argudio eta proba empiriko zein arrazionalen funtsatutako azalpenak eskaintzen.

Argi, sintetiko eta zuzen, Epikuroren bi testu hautatuek bere teoria etikoaren nondik norako nagusiak eta bizitza onaren zertzelada oinarrizkoak eskaintzen dituzte. Bere filosofiaren bi dosi txiki izanagatik ere, nahikoak dira, bere proposamena bidegabeki gaitzetsi zutenen kontra, bai epikurear hedonismoaren izaera finaz eta neurritsuaz jabetzeko, bai eta epikurear filosofiak duen karga intelektual sakonaz jabetzeko. Horietan gehiago sakondu eta epikureismoaren kanonikaren eta fisikaren gakoak landu nahi dituen irakurleak, Epikuroren gainerako testuetan ez ezik, Lukrezioren *De Rerum Natura* olerkian hausnarke-ta oso baliagarriak aurkituko ditu.

Eskertza

Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) AKTIBA (IT1762-22) Ikerketa Taldearen baitan sortu den heinean, bertako kide guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Era berean, Agus Arrietari eta Mikel Torresi eskerrak eman nahi dizkiegu, testua irakurri eta hainbat zuzenketa garrantzitsu iradoki dizkitelako.

Jonathan Lavilla de Lera eta Javier Aguirre Santos
2023ko urtarrilan, Iruñean

HITZAURREA

ANTZINAKO FILOSOFOEK PROPOSATUTAKO HAINBAT ZORIONTASUN EREDU

Antzinaroko gizakientzat, «Dohatsuak» (*mákar*) hein batean jainkoen izen berezia zen, zeintzuek, kantu homerorikoen arabera, «bizitza erosa duten».³⁰ Haien-tzat, dohatsutasun hura hilezkortasunean, gaztetasun amaiezinean, eta plazeren, festen eta oturuntzen be-tiereko bizitzan zetzan.

Gutxika-gutxika, ordea, arrazionalismo be-riaren eraginpean, jainkoak irudikatzeko garaian moralismoa nabarmentzen hasi zen. Moralismo horren lehen zantzuak Hesiodoren obran antzematen dira eta, geroago, presokratikoen eta tragikoen lanetan.³¹

Edonola ere, joera horrek Platonekin eta Aristo-telesekin biziko du bere gailurra. Platonen *Timeo* obran, Sortzailea ona eta eskuzabala izateaz gain, mundu ho-netako gauza guztiak berarekiko antzekotasun maila

30 Homero, *Iliada*, I, 339; VI, 138; *Odisea*, IV, 804. Antzinatean «Dohatsuak» (*mákar*) terminoak zuen esanahian sakontzeko, ik. G. Kittel eta G. Friedrich, *Theologisches Wörterbuch zum Neuem Testament*, Kohlhammer, Stuttgart, 1933, «Makar» artikulua.

31 Ik. jada zaharra baina betiere interesekoa den honako liburua: P. Decharme, *La critique des traditions religieuses chez les Grecs, des origines au temps de Plutarque*, Paris, Picard, 1904.

handienarekin sortu daitezen eta onak izan daitezen nahi du. Hain zuzen horregatik, berak taxutzen duen mundua bere baitan jainko dohatsu bat da (*Timeo*, 34 b), izan ere, bere buruarekin harmonian dago: «Bakarra eta bakartia, bere bikaintasunari esker bere buruarekin bat eginda egoteko gai da, beste ezeren premiarik ez du —bere buruarekiko ezagutza-objektu eta laguntasun-objektu izanik— bere burua ase izateko». Aristotelesen jainkoak ere bere burua pentsatzerakoan lortzen ditu bere zorientasuna eta poztasuna (*Metafisika*, 1072 b 28), izan ere, modu horretan gauzatzen du ekintzarik bikainenena eta independenteena.

Sei mende beranduago, o.a. III. mendean, Plotinoren jainkozko mundua oraindik ere zorientasunaz eta argitasunaz beteriko mundua da. Hurrenez hurren Bata (zeina gauza guztien printzipio gorena den), jainkozko Adimena (zeinak bere burua pentsatzen duen) eta jainkozko Arima (zeinak Adimena behatzen duen) deskribatu ostean, Plotinok (I, 8, 1, 25) honakoa ondorioztatzen du: «Horrelakoa da jainkoek izaten duten bizitza dohatsua eta arazorik gabea». Bere aburuz, jainkoen oturuntzek, zeintzuen inguruan mintzo den Platonen *Oturuntza* obrako Poros eta Penia-ren mitoa, jainkoen dohatsutasuna irudikatzen dute (III, 5, 9, 39); halaber, Homeroren «bizitza eroso izatea» esamoldea baliatuko du mundu espiritualean jainkoek duten bizitza izendatzeko (V, 8, 4, 1). «Soilik izaki onak dira zorientitsuak, eta horregatik dira jainkoak zorientitsuak» (III, 2, 4, 47). Izaki espiritualentzat, hain zuzen, zorientasuna espiritualak izatean datza, hau da, materiatic urrun mantentzean, purutasunean eta gardentasunean euren burua ezagutzean, eta, batez ere, eurak transzenditzen dituen eta euren sorburua den Bata-Ongiarekin harremanetan egotean. Ordea, Ongiak berak kontzientzia eta zorientasun oro gainditzen ditu.

Timeoko Jainko-Munduaren modu berean, Aristoteles Adimenaren modu berean, Epikuroren jainkoak edertasun bikaina duten izakiak dira, zeinak bakean eta lasaitasunean murgilduta bizi diren. Alabaina, Pentsamendu hutsa izatetik urrun, giza itxura dute, nahiz eta euren kasuan itxura hori gardena eta airearen modukoa den. Eta euren dohatsutasuna euren jakiturian eta bertutean datza, zeinei esker erabateko kezkarik eza —edo plazeren betikotasuna— bizitzen duten. Epikuroren arabera, jainkoek ez dute mundua sortu eta ez dute inongo eraginik haren bilakaeran ez eta giza aferatan ere, izan ere, mundua atomoen ausazko talkaren ondorioa da. Horregatik, jainko homeriarren moduan, eta eurak baino are eta hobe, zeintzuek giza liskarretan batzuen ala besteen alde kartsuki egiten duten, Epikuroren jainkoak dohatsuak dira, izan ere, euren lasaitasuna erabatekoa da eta ez dute parte hartu beharrik ez giza aferatan ez eta munduaren gobernuan ere. Kontua horrela aurkeztuz, Epikurok uste du beste filosofo batzuek —Platonek edo estoikoek kasu— baino jainkotasunaren ikuskera puruagoa proposatzen duela: munduaz arduratzeko betekizunak bere jainkoak kateatzen eta akitzen ez dituen heinean, eta beste ezerekin erlaziorik ez duten heinean, euren bikaintasun puruan erdiesten dute erabateko zorientasuna.³²

Jainkoen dohatsutasunean parte hartzea

Gizakiak posible du jainkoen dohatsutasunean parte hartzea; dena den, ideia hori hausnarketa filosofikoa baino lehenagotik dator. Lehenik eta behin, dagoeneko festa erlijiosoak jainkoen poztasunarekin

32 A. J. Festugière, *Épicure et ses dieux*, Paris, Presses Universitaires de France, 1968, 71-100 orr.; B. Frischer, *The Sculpted World*, Berkeley, University of California Press, 1982, 83-84 orr.

bat egiteko modu bat ziren. Platonek (*Legeak*, IV, 716 d) horrela adierazi zuen: «Pertsona zintzoarentzat jainkoei sakrifizioak eskaintzea, eurekin behin eta berriro harremanetan jartzea otoitzen, eskaintzen eta oro har gurtzen bidez, biderik ederrena eta onena da, dohatsutasunerantz biderik ziurrena». Izan ere, bozkario kolektiboko momentu horietan, gizakiek jainkoaren presentzia biziki sentitzen dute. «Gure arrazarekiko errukiz, zeina naturaz oinazera ohitua dagoen, jainkoek euren omenez ospatu beharreko festen txandakatzea ezarri dute, hain zuzen, gure lanaldien artean kokatutako atsedenaldira gisa; eta ospakizun horietako bidaide gisa eskaini dizkigute musak, Apolo musageta eta Dioniso» (*Legeak*, II, 653 d).

Horretaz gain, «Dohatsuak» izendapenak, zeina «Dohatsuen Uharteko» biztanleei esleitzen zaien, agerian uzten du greziarrek sinesten zutela gizaki batzuk, euren bertute bikainari esker, jainkoen antzekoa den dohatsutasunaren merezidun izateko gai zirela: «Bizitza osoan zehar justuki eta sainduki bizi izan den hura hil ostean Dohatsuen Uhartera joaten da, non gaitz orotik salbu egoten den, erabateko zoriontasunean» (*Gorgias*, 523 b 2).

Filosofiaren garapenari esker zehatzago definituko da nola parte hartu dezakeen gizakiak jainkoen dohatsutasunean. Ikusmolde honen baitan, posible da bi joera bereiztea, gainerakoan erabat elkarren kontrakoak ez direnak: alde batetik, tradizio sokrati-koak, zeinaren arabera jainkozko zoriontasunean parte hartzeko gakoa ariman Jainkoaren presentzia izatean datzan eta, azken finean, Ongiarekiko maitasunak eragiten duen; bestetik, jarrera epikurearra, zinez konplexua dena eta aurrerago deskribatu beharko duguna.

Sokrates historikoaz gehiegi ez dakigun arren, Platonen eta Xenofonten testigantzek iradokitzen dute laket zitzaiola nolabaiteko jainkozko presentzia bat aipatzea: bere barruan azaltzen zen *daimon* famatua, «ahots moduko bat, zeinak, entzungai egiten den aldiro, egitear nengoen horretatik aldentzen nauen» (*Sokratesen defentsa*, 31 d). Bestalde, Sokratesen pertsonaia betirako berdin mantenduko da; zehazki, giza ongi ororen gainetik eta bizitza beraren gainetik ongi morala (*Sokratesen defentsa*, 29 d) lehenesten duen filosofoa da, zeinak ondokoa aldarrikatzen duen: «gizaki batentzat ongirik handiena honakoa da: egunero solastea bai bertutearen inguruan, bai beste pertsonak zein nire burua aztertzerakoan hausnartzen ditudan eta entzuten dizkidazuen gainerako gaien inguruan; eta horrelako azterketa baten lupapean ez dagoen bizitza bizitzeak ez du merezi» (*Sokratesen defentsa*, 38 a).

Funtsean, Platon eta Aristoteles joera sakon horrekiko fidel mantentzen dira, baina planteamenduari kutsu nabarmenki intelektualistagoa emanez. Barne-jainkoak sustatzen duen bizimodu morala bertuterantz bideratuta egoteaz ez ezik, behaketarantz ere bideratuta dago. *Timeoren* (90 c) amaieran, Platonek honakoa adierazten du: «bere baitan jainkozkoa dena zaintzen duen hark, bere baitan bizi den *daimona* ordena bikainean mantentzen duen hark, ezinbestean izan beharko du zinez zoriontsua». Edonola ere, testu honen testuingurua kontuan hartzen bada, ematen du gizakiak ezohiko zoriontasun hori erdiesteko egin behar duen bidea, batez ere, bere pentsamenduak erregulatzean datzala, hots, bere pentsamenduak jainkozkoak diren gauzetarantz bideratzean.

Aristotelesen aburuz, munduan jainkozkoa dena, bere gailurrean, zerutarra dena mugitzen duen

elementu maitekor baten modukoa da; bada, era be-rean, bere burua pentsatzen duen Adimena, hots, gizakiaren baitan jainkozkoa den hori, adimena da, hots, espiritua. Horrela, paradoxa batean erortzen da bere planteamendua: gizakiarengan esentzialena den horrek gizakia transzenditzen du. Hortaz, gizakiak zoriontasuna aurkituko du berari gehien komeni zaion bizimoduan, hots, bizimodu espiritualean, zeina, aitzitik, gizakiaz gaindikoa den. «Zenbat eta gehiago handitu gure behaketa, hainbat eta gehiago haziko da gure zoriontasuna» (*Nikomakorentzako Etika*, 1174 b). Beraz, soilik oso bakanetan erdietsi dezakegun jainkozko dohatsutasunean datza giza zoriontasun gorena. «Guk oso istant urritan baino lortzen ez dugun zoriontasun egoera hori, hain zuzen, Jainkoak etengabe bizitzen du» (*Metafisika*, 1072 b 28). Aurrekoari honakoa gehitu ahalko genioke: beti errealista den heinean, Aristotelesek badaki zoriontasun hori soilik erdietsi dezakeela osasun oneko gorputza duen gizakiak, zeina beharrezkoak diren gutxieneko elikagaien eta baliabideen jabe den. Edonola ere, Aristotelesek uste du hobe dela, hain justu, kanpo-ongi kopuru txikienarekin bizitzea (*Nikomakorentzako Etika*, 1179 a).

Plotinoren arabera ere, arimaren baitako presentzia jainkozkoan eta Ongiarekiko arimak duen bulkadan —hots, maitasunean— datza giza zoriontasuna. Plotinok are eta argiago nabarmenduko du dagoeneko Platonek eta Aristotelesek iradoki zuten ideietako bat: jainkozko presentziaren eta Ongiarekiko maitasunaren arteko lotura. Platonek eta Aristotelesek aditzera ematen dute arimaren baitakoa den espirituaren presentzia jainkotiarra ez dela bere horretan nahikoa giza zoriontasuna bermatzeko. Horrez gain, nahitaezkoa da presentzia horretaz kontziente izatea, barne-jainko horren «zain-

tzaz ardura hartzea», espiritua oinarri hartuta bizitzera iristea. Beraz, jainkozko presentzia horrek berarekin ekartzen zuen Ongia maitatzeko aldarria, edo beste modu batean adierazita, gure izate osoa jainkozko Espirituan bihurtzeko aldarria. Hori helarzte aldera, Plotino adierazpen deigarriez baliatu zen: «espiritua geure atal bat da eta, aldi berean, gure buruak goratzerakoan helmugatzat dugun hori» (*Eneadak*, I, 1, 13, 7). Edota, bereziki: «hura beti dago presente, baina gu hari soilik presente gatzaiakio harengandik urruntzen gaituzten gauza guztiak baztertzen ditugunean» (VI, 9, 8, 33). Hori da, hain zuzen, Pascalen pentsakizun famatuaren oinarria: «ez nindukezu bilatuko, ez balitz dagoeneko aurkitu nauzula». Gudan dagoen jainkotasunaren presentzia inkonszienteak eramaten gaitu jainkotasuna maitatu eta bilatzera. Jainkozko presentzia eta Ongiarekiko maitasuna, beraz, oso estuki lotuta daude. Bada, zoriontasuna gure baitan dagoen Espirituaren bizitzan parte hartzean datzala esatea Plotinori ez zaio nahikoa iruditzen. Bere ustez, arimak are eta jomuga bikainagoa du, nahiz eta oso bakanetan erdiesten duen. Izan ere, bere aburuz, Espiritua ona bada ere, Espiritua ez da Ongia. Funtsean, Plotinorentzat bigarren mailako zerbait litzateke nolabait norberaren kontzientzian datzan zoriona, norberarekiko harremanean datzan zoriona, zeinak Espirituaren bizimodua ezaugarritzen duen. Ongia bera zoriontasunetik harantz dago, izan ere, *Ongiak* ez du ezer behar, ez eta bere burua ere: ez da bere buruarentzako ongia, baizik eta besteen Ongia huts-hutsik. Beraz, une pribilegiatu batzuetan Espirituarekin bat egiteak ez du arima asebeteko; baizik eta, Plotinok azalduko duen moduan (VI, 7, 35, 24), Espirituarekin batera, are bakangoak eta bikainagoak diren uneetan, «maitasunezko eldarnio» batean Ongiaren presentzia bizitzeak. Hortaz,

arimaren zoriontasun gorena mistikotzat jo daitekeen esperientzia batean datza, zeinaren bereizgarrietako bat berebiziko bozkarioa den. Nahikoa zaio arimari Harekin egotearekin, «horren handia baita bizitzen ari den poza» (VI, 7, 34, 38).

Zentzu batean, posible litzateke Platonengan, Aristotelesengan eta Plotinorengan nolabaiteko hedonismoa atzematea. Izan ere, Espirituaren bizitzaren eta Ongiarekiko maitasunaren eskutik bozkario eta gozamen espirituala datoz. Esanguratsua da, bestalde, tradizio sokratikoan estoizismoak jokutzen duen paper berezia; hain justu, intentzio morala Ongiarekiko maitasunaz bestelakoa den motibazio orotik —hedonismo mota orotik, hedonismo espirituala barne— ahal bezainbeste garbitzeko ahalegin miresgarria da estoizismoa. Ezbairik gabe, estoikoek ere Jainkoaren presentzia ariman bizitzean eta Ongiarekiko maitasunean oinarritzen dute giza zoriontasuna: «Gure barnean espiritu saindu bat bizi da, zeinak gure ekintza onak eta gaiztoak begizatzen eta kontrolatzen dituen». Senekaren (*Luziliorantzako gutunak*, 41, 2) adierazpen horri Epiktetok honakoa erantzuten dio: «Jainkoa zurekin eramaten duzu leku guztietara [...] eta ez dakizu [...], zure baitan daramazu eta ez duzu ikusten zure pentsamendu lizunekin eta zure ekintza lardatsekin zikintzen duzula» (II, 8, 11-14). Eta Aristotelesengan eta Plotinorengan atzemandako paradoxa bera estoikoengan ere aurki daiteke: Jainkoa gu geu gara, haren txinparta eta zati bat garen heinean; baina, aldi berean, Jainkoa gu geu baino gehiago den zerbait da, zeinetarantz bueltatu beharra dugun: eredu bat da, aldi berean barnekoa eta transzendentea den Arrazoi bat, zeinaren arabera bizi behar dugun. Platonek, Aristotelesekin eta Plotinok baino argiago eta garbiago, estoikoek aldarrikatzen

zuten bertuteaz bestelakoa den zoriontasunik eta plazerik ez dagoela, eta ongi morala bera dagoeneko ongi moralaren saria dela. Estoikoentzat ongi moralaz gain ez da bestelako ongirik existitzen; hau da, existitzen den ongi bakarra da ongi jokatzeko borondate oso eta eraginkorra. Haientzat, gainerako guztiak ez du interesik, hots, gainerako ezerk ez du berezko baliorik. Beraz, gauza guztiei dagokienean jakintsu estoikoa erabat askea da. Guztiz interesik gabekoak diren gauzen adibidetzat, estoikoek ondokoak zerrendatzen zituzten: bizitza, osasuna, plazera, edertasuna, indarra, aberastasuna, ospea eta etxe onekoa izatea; eta baita ere horien kontrakoak diren heriotza, gaixotasuna, oinazea, itsuskeria, ahulezia, pobrezia, sonarik eza eta etxe txarrekoa izatea. Gauza horiek guztiak ez dira ez onak ez txarrak, eta, beraz, ez dira gai ez zoriontasuna ez zorigaitza sorrarazteko. Aipatzekoa da, zentzu horretan, estoikoek *betebeharren teoria* izendaturikoa: borondate onak ariketa egokiak atzeman zitzan, estoikoak ahalegindu ziren adierazpen baten bidez, hots, betebeharren teoriaren bidez, jokaera zuzenaren inguruko kode praktikoa bat eskaintzen, zeinak soilik balio erlatiboa aitortzen baitie printzipioz intereseik gabekoak diren gauzei, osasuna, familia eta hiria kasu. Edonola ere, hemen betebeharren teoriaren inguruko azalpen luzeak ematea saihestuko dugu; gure helburuei begira, nahikoa izango da moral estoikoaren purutasuna azpimarratu izana. Antzinako estoizismoaren oinordeko eta emaitza diren Epiktetok eta Marko Aureliok bikain azaldu dute zeintzuk diren estoiko batek errealitateko esparru askotarikoetan eduki beharreko jarrera nagusiak: beste ororen aurretik, ongi morala bizitzako egoera guztietan ongi epaitzean datza, horretarako objektibitate zorrotza mantenduz; eta horren ostean,

gure esku ez dauden eta probidentziak ezarri dizkigun gertakariak piatotsuki onartzean datza; eta, azkenik, gure esku dagoen gauza orori dagokionean, giza komunitatearen zerbitzura jokazean datza, justizia praktikatu.³³

Bere aldetik, Epikurok erabat modu bestelakoan ulertzen du zertan datzan gizakiaren parte hartzea jainkoaren zoriontasunean. Izan ere, berarentzat zoriontasuna plazeran datza; ez haatik ongi moralean, pentsamenduaren lanketan edota ekintzan. Gizakiek beldurra diete beldurgarriak ez diren gauzei; gainera, nahitaez desiragarriak ez diren eta euren eskuetatik ihes egiten duten gauzak desiratzen dituzte. Hain zuzen, beldur eta desira mota horiek sortzen dute giza sufrimendua. Horrela, zentzugabeko beldurrek eta ase gabeko desirak eragindako asaldurek akitzen dituzte euren bizitzak. Horregatik, fisika epikurearrak gizakiak halako beldurrez libratuko ditu, jainkoen beldur izateko arrazoirik ez dagoela agerian utziz. Izan ere, jainkoek ez dute ezein eraginik munduaren gertaeratan eta erabateko lasaitasun egoeran bizi dira. Heriotzari dagokionean, berarekin erabateko disolbatzea ekartzen duen heinean, esan beharra dago ez dela bizitzaren parte. Gainera, posible da desiraren aseezintasunaz askatzea; horretarako, naturalak eta beharrezkoak diren plazerak —edatea eta jatea kasu— naturalak diren baina beharrezkoak ez diren plazerengandik —amodioaren plazerak kasu— eta baita naturalak ez diren eta beharrezkoak ez diren plazerengandik ere bereizi behar ditugu. Lasaitasun egoera erdieste aldera, nahikoa da lehendabiziko

33 P. Hadot, «Une clé des *Pensées* de Marc Aurèle: les trois *topoi* philosophiques selon Epictète», *Exercices spirituels et philosophie antique*, Paris, Études Augustiniennes, 1981.

motako plazerak asebetetzea, hirugarren motakoei uko egitea eta bigarren motakoei batzuetan uko egitea. «Honakoak dira haragiaren aldarriak: “goseak ez egotea”, “egarriak ez egotea” eta “hotzak ez egotea”. Egoera honetaz gozaten duen eta etorkizunean ere egoera honetaz gozatzeko itxaropena duen hura, hain zuzen, zoriontasunari dagokionean Jainkoarekin berarekin lehiatu daiteke».³⁴ Hasiara batean, moral forma hau oso materialista dela eman dezake. Alabaina, tentu handiagoz aztertuta, planteamendu honek fintasun espiritual oso handia duela argi geratzen da, zeina, lehenik eta behin, jainkoen lasaitasunaren deskribapenean atzematen den. A.-J. Festugièrek ohartarazitako moduan, epikurear jainkozaletasunak sentimenduen purutasun nabarmena ekartzen du berarekin: «Batez ere jainkoei esker sortzen da plazer-zaletasuna gizakien bihotzetan».³⁵ Hori ospakizun erlijiosoei dagokienean esan daiteke. Ikusi dugun moduan, beraietan jakintsua ez da mugatzen jainkoen presentziaren poza bizitzera; aitzitik, epikurearrek aldarrikatzen duten moduan, «hark [hots, jakintsuak] jainkoen natura eta izaera miresten ditu, horietara iristeko ahaleginak eginez, nolabait natura eta izaera horiek ukitzeko eta horiekin bizitzeko asmoz; eta hark ere jakintsuak ‘jainkoen lagunak’ deitzen ditu eta jainkoak, ‘jakintsuen lagunak’.³⁶ Eta jainkoak giza afertaz arduratzen ez diren heinean, jakintsuak ez die babesik erregutuko beraiengandik mesede jakin batzuk eskuratzeko asmoz; aitzitik, jainkoen lasaitasuna behatuz eta euren pozarekin bat eginez, jakintsuak zoriontasuna erdietsiko du. Epikurorentzat, jainkoak

34 A. J. Festugièrre, *Épicure et ses dieux*, op. cit. 44. orr

35 *Ibid.* 97. orr. (H. Usener, *Epicurea*, Leipzig, 1887, 356. orr. 385a fr.).

36 H. Usener, *Epicurea*, 258 orr., 386. fr., Festugièrrek aipatua, *ibid.* 98. orr.

maitatzea euren edertasuna eta bikaintasuna maitatzea da. Horri, hain zuen, P. Decharme-k³⁷ «maitasun purua» deitu dio. Beraz, ondokoa eginez erdietsiko du zorientasuna jakintsu epikurearrak: jainkoak eredutzat hartuko ditu, lasaitasun erabatekoaz eta purutasun espiritual erabatekoaz bizitzeko; bere desirak ongi arautuko ditu; bere kontzientzia aztertuko du; laguntasun bizi batek bateratzen duen komunitateak bere akatsak anaitasunez zuzen ditzan onartuko du. Jainkoen kasuan gertatzen den bezala, baliteke epikurearren zorientasuna existitzearen plazer hutsa izatea.³⁸

Zorientasun berekoiak?

Antzinako jakituriak proposatutako zorientasun mota desberdinak berekoitzat jo al daitezke? Modu sobera laburrean eskaini berri dudan deskribapena berriakurtzeak, apika, irakurlearengan iritzi hori sortu lezake; gainera, noiz edo noiz historialariek zein filosofoek ideia hori helarazi dute. Hain zuzen, emango luke nolana ere zorientasun eredu horietako batzuk soilik elite batzuei zuzenduta daudela, esate baterako, behaketa aristotelikoa edo estasi plotiniarra erdieste-ko gai diren horiei. Are gehiago, gure buruari honakoa galdetu ahalko genioke: zorientasun eredu horiek guztiek ez al dute helburu bakartzat banako isolatuaren bikaintasuna?

Egia esan, arazoa oso korapilatsua da. Haste-ko, ukaezina da antzinako filosofo garrantzitsu askok izaera «misiolaria» izan zutela; eta hemen «misiolari»

37 P. Decharme, *op. cit.*, 257. orr.

38 Eskola epikurearren bizimoduari dagokionean, ik. N. W. De Witt, *Epicurus and his Philosophy*, Westport, University of Minnesota, 1954, 9. orr. eta W. Schmid, «Epikurus», *Reallexikon für Antike und Christentum*, Stuttgart, Hiersemann, 1962, V, 740-755

berba bi zentzutan ulertu behar da: «jainkoaren misio bat jasotzea» eta «besteak konbertitzen saiatzea». Hemen ere, Sokrates eredu nagusia da. Bere burua honela aurkezten du: «jainkoen nahiak eraginda atenastarren artean dagoen gizona [naiz], horiek [hots, atenastarrak] ezpara baten moduan xaxatzeko» (*Sokratesen defentsa*, 30 e). «Bai aberatsaren bai txiroaren esanetara nago, bereizketerik gabe» (*Ibid.* 32 b). «Jainkoak Hiriri eskaini dion gizona naiz: zuen buruei galdetu ea gizaki batentzat posible den, nik egin dudan moduan, [...] orain dela horrenbeste urte [...] bere interes pertsonal guztiak alde batera utzi izana [...], hain zuzen, zuetaz bakarrik arduratzeko [...], zuetako bakoitza gizaki hobe bilakatzerantz bultzatuz» (*Ibid.* 31 b).

Gizakien artean bizi den jainko gisa aurkeztu dute Epikuro bere jarraitzaileek, hain zuzen, gizadiaren salbatzaile gisa. Era berean, epikurear oro misiolaria bilakatu da; adibidez, hori da Oinoandako Diogenesen kasua. O.a. II. mendean, bere jaioterria zen Oinoandako hirian, Likian (egungo Turkiako hegomen-debaldean), Diogenesek harrizko murru batean testu erraldoi bat zizelkatzea agindu zuen, zeinak helburutzat zuen bere hirikideei eta hurrengo belaunaldiei Epikuroren dotrinaren nondik norako nagusiak eta bere mezu salbatzailea ezagutaraztea.³⁹ Bestalde, Antzinateko testigantza askotarikoak bat datoz: epikurear dotrinaren hedapena berealdikoa izan zen. Epikurear eskolaren berritasun nabarmenena izan zen, batez ere, filosofia jorrazteko gonbita gizaki guztiei zabaltzea —baita ezjakinei eta formakuntza intelektual berezirik gabekoei ere— eta euren kidetzat esklaboak edota

39 Testuaren edizio osoa (momentuz osoa) eta italiar itzulpena irakurtzeko, ik. A. Casanova, *I frammenti di Diogene d'Enoanda*, Firenze, Università Degli Studi di Firenze, 1984.

emakumeak —baita prostitutak ere, hala nola Epikuroren ikaslea izan zen Leontion, zeina margolari jakin batek «gogoetan» irudikatu zuen— onartzea.⁴⁰

Filosofia estoikoak ere ez zion uko egiten bere mezua esklabo, emakume eta, oro har, gizaki guztiei zuzentzeari. Zentzu horretan, komeni da G. Rodierren ohar argigarria gogoratzea: «Estoikoen asmoa izan da bertutea zein zorientasuna [...] guztientzat eskuratzeko modukoak izatea; eta, gainera, horiek mundu honetan izatea eskuratzeko modukoak [...]. Alabaina, horretarako beharrezkoa da bizi garen mundua ahalik eta ederrena eta onena izatea, ez izatea goi-mailako mundu baten kontrakoa [...], ez egotea Zeusen mundu urdin argian gure begiek hauteman ditzaketen errealitatez gain bestelako errealitaterik».⁴¹ Filosofia misiolariaren ideia estoizismoan ere aurki daiteke, zinismoak eta estoizismoak beti loturaren bat izan duten heinean. Sinopeko Diogenesetik aurrera, zinikoak propagandista sutsuak izan ziren: etsenpluaren bidez predikatzen eta euren mezua klase sozial guztiei zuzenduz, zinikoek konbentzio sozialak salatu zituzten eta naturarekin bat datorren bizimodu sinplera bueltatzea proposatu zuten. Epiktetok nolabait estoizismoaren monjetzat jotzen ditu zinikoak. Zinikoak gizakien artean ibiltzen diren Jainkoaren mandatariak, mezulariak eta orde-

40 Plinio Zaharra, *Hist. Nat.* 35, 99 eta 144. Epikureismoaren hedapenari dagokionean, Zizeronek (*De finibus*, II, 14, 47) honakoa esan zuen: «Greziarren eta italiarren kontzientziak ez ezik, Epikurok eskualde barbaro osoko kontzientziak astindu zituen». Ik., era berean, Witt, *op. cit.*, 26-27 eta 329 orr. Laktantzioren (*Institutiones divinae*, III, 25, 4) arabera, bai estoikoek bai epikurearrek filosofiaren ikaskuntzan emakumeak, esklaboak eta ezjakinak onartzen zituzten.

41 G. Rodier, *Études de philosophie grecque*, Paris, 1926, 254-255 orr. (V. Goldschmidt, *Le système stoïcien et l'idée de temps*, Paris, 1977 59. orrialdean aipatua).

kariak dira, izan ere, Epiktetorentzat filosofoa, oro har, Jainkoaren lekukoa (*mártus*) da.⁴²

Egia da, ordea, Platonen edo Plotinoren platonismoa, baina baita aristotelismoa ere, zientzia guztietan trebatutako eliteari bakarrik zuzendutako filosofiak direla.

Bestalde, aurrekoaz gain, gure buruari honakoa galdetu beharko genioke: Antzinateko eskolek pentsatutako zoriontasun ereduak banakoei proposatzen al diete euren bikaintasun propioaren bilaketa berekoia, zeina nor bere baitan bilduz eta mundutik ihes eginez lortzen den? Azken batean, uste dut galdera horri ezetz erantzun behar zaiola.

Lehenik eta behin, heldu diezaiogun puntu errazenari. Begien bistakoa da estoikoak ezin direla pentsalari berekoitzat jo, izan ere, eurentzat zoriontasuna ongi moralan datza, zeinaren nahitaezko osagaiak diren besteak beste komunitatea zerbitzatzea, justizia praktikatzea eta beste gizakiekiko maitasuna. Epikurrearren zoriontasuna, ordea, ez al da berekoia? Egia da posible dela epikureismoa susmo txarrez begiratzea, baldin eta soil-soilik epikurrearren lasaitasunaren kontzeptuan eta Hiriaren aferatan parte hartzeari egiten dioten ukoan fokua ipiniko bagenu. Hala eta guztiz ere, ukaezinak dira epikureismoaren asmo misiolaria eta laguntasunari eta komunitateak eratzeari —zeinen ki-deek elkarri lagundu behar dioten, bai espiritualki, bai materialki— aitortzen dioten garrantzi handia. Beraz, azken elementu horiek kontuan hartuta, argi dago fi-

42 Epikteto, *Hitzaldiak* [edo *Dissertationum Epictetearum sive ab Arriano sive ab aliis digestarum fragmenta*], III, 22. lk., halaber, A. Delatte, «Le sage-témoin dans la philosophie stoïco-cynique», *Bulletin de la Classe des Lettres*, Bruxelles, Académie Royale de Belgique, 1953, V(39), 166-186 orr.

losofia epikurearra hedonismo berekoitzat jotzen duen iritzia baztertu beharra dagoela.

Platoni eta Aristotelesi dagokienean, euren proposamena berekoa ez dela ulertze aldera, nahikoa da kontuan hartzea politikarekiko eta Hiriaren hobekuntzarekiko biek duten ardura komuna. Ordea, zer gertatzen da Plotinoren kasuan? Zer esan dezakegu bere obrari dagokionean, zeina, bere ikaslea izan zen Porfiriok moldatutako bertsioaren arabera, honako leerroekin amaitzen den? «Horrelakoa da jainkoen bizitza eta baita jainkozkoak eta zoriontsuak diren gizakiena ere: mundu honetako gauzetatik urrunduta egotea, mundu honetako gauzeekin batere atseginik ez bizitzea, bakarraren Bakarrera ihesa» (*Eneadak*, VI, 9, 11, 48). Aipatu berri den *bakarraren Bakarrera ihesa* maiz jarrerara narzisistaren parekotzat ulertu izan da, hots, nia bere baitan biltzearen parekotzat, izan ere, funtsean Bata edo Ongia den *Bakar* hori nia baino ez da. Zoritxarrez, hemen ezin dugu kontu honen azterketa sakonik eskaini. Edolora ere, komeni da honako gehitzea: plotiniar esperientzia mistikoari dagokionean, funtsezkoa da, alde batetik, niaren esperientzia eratzea —barnekotasunaren errebelazioa dakarren neurrian— eta, bestetik, Alteritatearen esperientzia eratzea —erlatibo den horren, hizkuntzaren, esangarria denaren eta pentsagarria denaren mugak gainditzen dituen eta Absolutua [zeinarekin identifikatzea ezinezkoa den] adierazten duen neurrian—. Bada, horrelako esperientzia bat ezin da berekoitzat jo.

Horiek dira, hortaz, laburregi deskribatu badira ere, Antzinaroko filosofia-eskolek proposatutako zoriontasun eredu desberdinak. Eta kristauak ez dituzte ereduok ahanzturan erortzen utziko. Tradizio monastiko eta aszetikoak berriz ere eredu estoikoari helduko

dio. Horregatik, ez da harrizkoa Ricci aita ospetsuak, 1605. urtean, letradun txinatarrak kristautasunean formatzeko asmoz, *Hogeita bost paragrafoen liburua*⁴³ idatzi izana, zorientasunerako arauak biltzen zituen katixima moduko bat, zeina hein handi batean Epiktetoren *Eskuliburuaren* —*Enkhiridionaren*— hainbat paragraforen itzulpen parafrasatua baino ez den, aldi berean kristautasunera eta konfuzianismora egokitua. Jakina da, bestalde, Platonen, Aristotelesen eta Plotinoren ereduek esperientzia mistiko kristaua taxutzerako garaian izan zuten garrantzia.⁴⁴

Pierre Hadot
1998an Parisen

43 Ik. C. Spalatin, «Matteo Ricci's Use of Epictetus' *Encheiridion*», *Gregorianum*, 1975, 56, 551. orr.

44 Itzultzailearen oharra: Jatorrizko bertsiio frantsesa horrela amaitzen da. 2010. urtean Errata Naturae argitaletxean argitaratutako gaztelaniazko bertsiok, ordea, honako esaldia gehitzen du: «Historiak, aldiz, modu tamalgarrian zigortu eta zokoratu zuen zorientasunaren eta plazeraren inguruan Epikurok garatu zituen hausnarketak».

MENEKEORENTZAKO GUTUNA

Epikurok Menekeori, agur:

[122]

Ez dadila inor filosofian jarduteko zalantzan egon gaztea izateagatik, ez eta zaharra izateagatik ere filosofian jarduteaz nekatu. Izan ere, arimaren osasuna bilatzerako orduan, inor ez da heldugabea ez eta helduegia ere. Antzekoak dira filosofian jarduteko sasoia oraindik iritsi ez zaiola edo dagoeneko pasa zaiola dioena, eta zorionsua izateko sasoia oraindik heldu ez zaiola edo jadanik pasa zaiola dioena. Hortaz, bai gaztearentzat, bai zahararentzat, beharrezkoa da filosofian jardutea: bigarrenarentzat, zaharra izanda ere iragana atseginez (*khárin*) gogoratzeari esker gazteagotuko delako; lehenengoarentzat, berriz, etorkizunarekiko soseguari (*aphobían*) esker aldi berean gaztea eta edadetua izango delako. Beraz, ezinbestekoa da zoriontasuna (*eudaimonían*) sorrarazten duten gauzak aztertzea (*meletân*), hain zuzen, hura presente

dagoenean den-dena dugulako eta falta denean, aldiz, gauza oro egiten dugulako hura lortzeko.⁴⁵

[123]

Behin eta berriro helarazi nizkizun aholkuak praktikan ipini eta aztertu itzazu (*meléta*),⁴⁶ bizitza onaren oinarritzko osagaiak (*stoikheía*) direla kontuan hartuz.⁴⁷ Lehenik, jainkoa izaki bizidun us-telezina (*áphtharton*) eta dohatsua⁴⁸ (*makárior*) dela pentsatu ezazu, jainkoaren inguruko *ulerkera ohikoak*⁴⁹

45 Epikurok filosofia zorientasunerako gako gisa aurkezten du. Filosofatzea jardun premiazkoa da, izan ere, haren bidez eta hari esker ikasten dugu zertan den bizitza ona eta libratzen gara arimak dituen kezka hutsalez. Horregatik, Epikuroren arabera filosofian aritzea kontu praktikoa da: filosofiak bizitza hobetu nahi du. Teoria egiterakoan, *nola bizi* beharko genukeen argitu nahi du.

46 Filosofia greziarraren lelo garrantzitsu bat da, hain zuzen, *esaten* edo *pentsatzen* denak eta *egiten* denak bat etorri behar dutela. Hori autore helenistikoetan nabarmena da, baina baita Platonen moduko autore klasikoetan ere.

47 Funtsean, «botika laukoitza» (*tetrápharmakon*) deritzonak agerian uzten ditu bizitza onaren osagaiak. Botika laukoitza lehen lau *lritzi nagusietan* eskaintzen da: 1) jainkoak ez direnez gutaz arduratzen, ez gara beraien beldur izan behar; 2) heriotza ez da ezer guretzat; 3) plazera sentitzea gure esku dago eta lortzen erraza da; 4) oinazea edo mina saihestea erraza da. *Tetrápharmakon* hitza erabiliz, Epikurok medikuntzako termino bat hartzen du eta esanahi berri bat ematen dio bere proiektu filosofikoan txertatuz.

48 Greziar hizkuntzan, oro har, egoera posiblerik hoberenean den gizakia deskribatzeko *eudáimon* hitza erabiltzen da; aldiz, egoera posible hoberenean dagoen jainkoari erreferentzia egiteko *makários* hitza erabiltzen da. Bertsio honetan bi terminoak «zorientsu» eta «dohatsu» gisa euskaratu ditugu, jatorrizko testuko aniztasun terminologikoa islatu nahian. Ordea, kontuan izan testu osoan zehar Epikurok bi terminoak baliokidetzat joko dituela, hots, sinonimotzat. Hitzak baliokidetzat jotzea, bestalde, ez da batere ezohikoa autore greziarren artean, arrunta baizik (ik. adib. Platon, *Politeia*, 344b7; Aristoteles, *Politika*, 1323a27, 1324a10, 1324a25 eta 1332a21). Beraz, «dohatsu» —edo erro bereko berbak— irakurtzerakoan, argi eduki dezala irakurleak finean zorientasunaz ari garela.

49 Hemen «ulerkera ohiko» gisa euskaratu dugu «*koiné nóesis*» esamoldea, zeina Epikuroren gako-kontzeptu baten perifrasi bano ez den, hots, «*prólepsis*» terminoaren sinonimoa. Testuan zehar «*prólepsis*» hitza «aurreulerkera» gisa itzuliko dugu. *Aurreulerkera* sentsazioaren

(*koiné nóesis*) zehazten duen modu berean, eta ez iezaiozula jainkoari ezer gehitu ustelezintasunaz bes-telakoa dena, ez eta dohatsutasunari ez dagokiona ere; aitzitik, jo ezazu iritzi egiazkotzat jainkoa dela bere dohatsutasuna ustelezintasunarekin batera mantentzeko gaitasuna (*dynámenon*) duen oro. Bada, jainkoak existitzen dira, izan ere, ebidentea (*enargès*) da horien inguruan daukagun ezagutza (*gnôsis*). Ordea, jainkoak ez dira existitzen gehiengoak⁵⁰ ([*hoi*] *polloí*) uste duen moduan, gehiengoak ez baititu jainkoak mantentzen hautematen dituen bezalakoak. Bada, ez da fedegabea (*asebès*) gehiengoaren (*tôn pollôn*) jainkoak aintzat hartzen ez dituen, baizik eta gehiengoaren usteak jainkoei esleitzen dizkiena.

[124]

Izan ere, gehiengoaren esanak jainkoen inguruan ez dira aurreulerkerak (*prolêpseis*), baizik eta suposizio (*hypolêpseis*)⁵¹ faltsuak.⁵² Hain zuzen ere, ho-

errepikapenaren bidez oroitzapenak sortzen duen ulerkera orokor eta egiazkoa da; adibidez, sentsazioaren bidez gizakiak hamaika bider hauteman ditugunean, gizakia den horren ulerkera orokorra —aurreulerkera— sortzen dugu eta, horri esker, «gizaki» esan edo entzuten dugunean dagoeneko gizakiaren eredu orokorra datorkigu gogora, nolabait sentsazioen gida gisa balio duena (ik. Diogenes Laerzio, X, 33). Beraz, «ulerkera ohiko» esamoldeak egiazkoa eta orokorra den ezagutza bati egiten dio erreferentzia, ez, ordea, jendearen *gehiengoak* duen iritziari, hots, unean uneko topikoei.

- 50 Kontuan eduki dezala irakurleak testuan zehar «gehiengoa» (*hoi polloí*) agertzen den aldiro, Epikurok gutxiespen-zentzuz erabiltzen duela esamoldea. Hots, «gehiengoa» ezjakinen multzoari egiten dio erreferentzia.
- 51 Hemen «suposizio» gisa euskaratu dugun «*hypolêpsis*» terminoa «uste» edo «iritzi» terminoaren (grekeraz, «*dóxa*») sinonimoa da. Epikuroren arabera badira zentzumenetatik jasotzen ditugun ezagutza bat-batekoak, beti egiazkoak direnak; horietatik abiatuta eratzen ditu gizakiak suposizio edo usteak, baina aurrekoak ez bezala, suposizioak edo usteak egiazkoak zein faltsuak izan daitezke (ik. Diogenes Laerzio, X, 34).
- 52 Jainkoen ikuskeraren inguruko eztabaida bizia bezain polemikoa izan zen Grezian. Xenofanes izan zen *gehiengoaren* —hots, Homero

rregatik jainkoengandik eratortzen dira kalte (*blábai*) eta onura (*ophéleiai*) handienak. Izan ere, eurei dagozkien bertuteekin etengabe bat egiten duten heinean, jainkoek euren modukoak direnak onartzen dituzte eta, aldiz, horrelakoak ez direnak arrotz gisa hartzen dituzte.⁵³

Ohitu zaitez pentsatzera heriotza guretzat ez dela ezer. Izan ere, ona (*agathón*) eta txarra (*kakón*) den gauza oro sentsazioan gertatzen da eta heriotza sentsazioaren gabetzea da. Heriotza guretzat ezer ez denaren ezagutza zuzenak, hortaz, bizitzaren izaera hilkorra (*thnetón*) gozagarria (*apolaustón*) egiten du. Hori eragitearen arrazoia ez da bizitzari denbora mugagabea (*ápeiron*) gehitzen diola, baizik eta hilezkortasun-irrikaz (*athanasías ... póthon*) libratzen gaituela.

[125]

Hain zuen ere, bizirik ez egotea beldurgarria (*deinón*) ez dela benetan ulertu duenarentzat, bizitzeak ez du ezer beldurgarririk. Gauzak horrela, esaten duena heriotzak atsekabea sorrarazten diola, ez hura heltzerakoan pairatuko dituen oinazeengatik (*lypései*) baizik eta hura noizbait helduko dela pentsatzeak oinazea sortzen diolako, ergela da. Izan ere, presente

eta Hesiodoren— jainkoen ikuskera kritikatu zuen lehen filosofoetako bat, jainkoen azalpen arrazionalago baten alde eginez. Ildo horretik, fedegabetasunarekin lotutako epaiketa ugari egon zen Grezia klasikoan eta Sokratesen heriotza horren isla txiki bat baino ez zen izan.

- 53 Pasarte honen zentzua ez da begien bistakoa. Ordea, Epikuroren planteamendua kontuan hartuta, argi dago ezin dugula ulertu jainkoengandik *kalte* edo *onurarik* jasotzen dugula. Hain zuzen ere, hori da Epikurok gehiengoari esleitzen dion eta kritikatu nahi duen iritzietako bat. Aitzitik, ematen du pasarteak aditzera eman nahi duela jainkoen inguruan dugun ulermenetik sortzen direla kalte eta onurak: jainkoek gure bizitzan eragina dutela pentsatzen dugunean, *beldurtuta* bizi gara; aldiz, gure bizitzan eraginik ez dutela jakiterakoan, ongi bizi gara, nolabait jaienkoak bezala.

dagoenean enbarazurik egiten (*enokhleî*) ez duen horrek hutsalki (*kenôs*) sortzen die oinazea haren zain bizi direnei.

Beraz, gaitz (*kakôn*) ooren artean ikaragarriena, heriotza, guretzat ez da ezer. Izan ere, gu existitzen garen bitartean, heriotza ez dago presente eta heriotza presente dagoenean, aldiz, gu ez gara existitzen. Horregatik, ez bizi direnentzat, ez zendu direnentzat, heriotza ez da ezer; lehenengoentzat hura ez baita existitzen eta bigarrenentzat, berriz, dagoeneko eurak ez baitira existitzen. Hala ere, gehingoak (*hoi polloî*) heriotzari ihes egiten dio gaitzik (*kakôn*) okerrera balitz bezala, edo, bestela, heriotza [hautatzen du] bizitzako [gaitzen] akabaila gisa. [Jakintsuak, aldiz, ez du heriotza saihesten].

[126]

eta bizirik ez egoteari ez dio beldurrik (*phobeîtai*). Izan ere, bizitzea ez da traba bat berarentzat eta bizirik ez egoteari ez dio beldurrik. Jaterako orduan, jakintsuak ez du beti ahalik eta jaki ugariena hautatzen, baizik eta atseginena (*hedistôn*); bada, era berean, bizitzean ez du denbora tarte luzeena nahi, atseginena (*hedistôn*) baizik.

Inozoa da gazteari aholkatzen diona ongi bizitzea eta zaharrari, berriz, ongi hiltzea. Izan ere, ez da soilik bizitzea pozgarria dela, baizik eta gauza bera dirrela bizitza onaren lanketa eta heriotza onaren lanketa (*meléten*). Are okerragoa da esaten duena «ederra dela jaiotzearen eta bizitzearen lanketa, berriz, hiltzearen eta heriotzaren lanketa». ^{54 55}

54 «Hadeseko ateak zeharkatzea», hau da, hiltzea.

55 Ik. Teognis, 425.

[127]

Izan ere, horretaz konbentzitura badago, nolatan ez dio ba bere bizitzari amaiera ematen? Hori egitea bere esku dago beti, baldin eta erabaki hori ziur hartu badu. Ordea, txantxetan ari bada, ergela da, hura ez baita txantxetan aritzeko moduko gaia.

Gogoratu beharreko kontua da etorkizuna ez dagoela erabat gure esku, ez eta erabat gure eskuz kanpo ere.⁵⁶ Horrela, ez gara etorkizunaren esperoan egongo hura ezinbestean gertatu behar dela sinetsita eta ezta etsituta egongo ere ezinbestean ez dela gertatuko iritzieta.⁵⁷

Kontuan hartu beharrekoa da desiren artean batzuk naturalak (*physikai*) direla eta beste batzuk, aldiz, hutsalak (*kenai*). Era berean, naturalen artean batzuk beharrezkoak (*anagkaion*) dira eta beste batzuk, aldiz, naturalak soilik. Halaber, beharrezkoen artean batzuk

56 Baliteke Epikurok hemen atomismo klasikoarekin egitea eztabaida, zeinaren aburuz gauza oro halabeharrez gertatzen den. Atomismoa oinarri hartuz, baina berau moldatuz, Epikurok, bere atomoen desbideratzearen (*parénklisis* edo *clinamen*) teoriari esker, erabateko determinismoa saihestea lortzen du; hori eginda, ausari eta moralitateari atea irekitzen die, atomisten proposamenean lekurik ez zutenak. Epikuroren atomoen desbideratzearen teoriaren arabera, atomoek aurretik susmatu ezin den desbideratzea pairatzen dute; ondorioaz, ausak lekua du, gauza oro ez da gertatzen halabeharrez eta, era berean, naturak ez du ordenamendu teleologiko zurrunik. Hain zuzen, filosofia (moral) epikurearrak zentzua du determinismorik ez dagoelako, hots, naturan gauza oro ez delako halabeharrez gertatzen. Hala ez balitz, giza gogoetek ez lukete inolako garrantzirik eta gizakiok ez ginatke gure ekintzen arduradun izango.

57 Epikurok behin eta berriro adierazten du zorionsu bizitzeko premiazkoa dela saihestea etorkizunaren inguruko pentsamenduek gugan kezka eta beldurrik sorraraztea. Etorkizunaren inguruan ditugun iritziak gugan hainbat itxaropen eta beldur sorrarazi ditzakete, zeintzuek ez duten posible egiten orainaz gozatzea. Hemen gogoangarriak dira Horazioaren (*Odak*, 1, 11, 8) hitzak, Epikuroren gogoetekin bat egiten dutenak: «probestu orainaldia (*carpe diem*) etorkizunaz ahal bezain gutxi iritzieta». Epikurorentzat gure erabakiek eragina dute etorkizunean, baina baita halabeharrek eta zoriak ere. Beraz, etorkizuna ez dago erabat gure esku eta ezin daiteke erabat aurreikusi.

beharrezkoak dira zoriontasunerako (*eudaimonían*), beste batzuk gorputza oinazetatik libratzeko eta beste batzuk, aldiz, bizitzeko.

[128]

Horien inguruko ezagutza (*theoría*) irmo batek badaki hautatze (*haíresin*) eta baztertze (*phýgen*) oro gorputzaren osasunerantz eta arimaren lasaitasunerantz (*ataraxían*)⁵⁸ bideratzen, hain zuzen, horietan baitatza dohatsuki (*makaríos*) bizitzearen helburua. Izan ere, egiten dugun gauza oro helburu hori gogobetetze (*khárin*) aldera egiten dugu; hots, ez sufritzeko (*algômen*) eta aztoraturik ez egoteko (*tarbômen*). Eta behin egoera horretan bete-betean gaudelarik, bizitzako ekaitz (*kheimón*) guztiak baretu egiten dira (*lýetai*): egoera horretan, izaki bizidunak ez baitu ibili beharko falta zaion zerbaiten atzetik, ez eta beste ezer bilatu beharko ere arimaren eta gorputzaren ongizatea (*agathón*) asebetetzeko (*symplerósetai*). Izan ere, plazeraren (*hedonês*) premia dugu, hain justu, plazera presente ez egoteagatik sufritzen (*algômen*) dugunean; aldiz, sufrimendurik pairatzen (*algômen*) ez dugunean, dagoeneko ez dugu plazerik behar.⁵⁹

58 Arimaren lasaitasuna (*ataraxía*) eta gorputzaren minik eza (*aponía*) dira, Epikuroren aburuz, bizitza zoriontsuaren osagai nagusienetako bi.

59 Epikuroren kasuan, plazera kuantitatiboki neurtzeaz gain, kualitatiboki ere neurtu daiteke. Are gehiago, aldagai kualitatiboak du, oro har, garrantzia handiena. Horretaz gain, plazerei dagokionean erraz asko bereizi daitezke eskola epikurearraren *hedonismoa* eta eskola zireniarrarena (ik. Diogenes Laerzio, X, 136-137). Epikurearren kasuan, oinazetik ezan datzan plazer *katastematikoak* edo egonkorak garrantzia handia du; era berean, iraganeko atseginak gogoratzean datzan plazera ere oso aintzat hartzekoa da. Zireniarren kasuan, aldiz, horrelako egoerak —plazer *katastematikoak*— ezin dira benetako plazer gisa hartu —haien ustez, atsekaberik eza erdi lo dagoen pertsonak pairatzen duen egoeraren moduko zerbait litzateke, ez haatik benetako plazera— eta soilik orainaldian aktiboki gozatzen diren plazerak dira bilatu beharrekoak. Begien bistakoa denez, Epikurok horrelako planteamendu hedonistak

Bada, horregatik diogu plazera (*hedonén*) dela bitzta dohatsuaren (*makaríos*) printzipioa (*arkhén*) eta helburua⁶⁰ (*télos*). Izan ere, eskarmentuak irakasten du (*égnomen*) hura dela ongirik (*agathón*) gorena (*prôton*) eta gure naturari dagokiona (*syggenikón*).⁶¹

[129]

Gauzak horrela, plazera dugu hautatze (*hairé-seos*) zein baztertze (*phygês*) ororen abiapuntua, eta baita helmuga ere, ongi (*agathón*) oro afekzioen (*páthei*) irizpidetik⁶² (*kanóni*) ebaluatzen dugunean (*krínontes*). Era berean, ongi (*agathón*) gorena (*prôton*) eta naturala (*sýmphyton*) denez —hain zuzen horregatik—, ez dugu edozein plazer hautatzen. Aitzitik, plazer ugari alde batera uzten ditugu, horien eskutik etorriko zaigun eragozpena (*dyskherés*) handiagoa denean. Halaber, pentsatzen dugu sufrimendu (*algedónas*) asko plazera baino hobeak direla, baldin eta sufrimendu horiek denbora luzez jasatearen ondorioz guretzat handiagoa den plazera sortuko bada. Hortaz, plazer oro, bere natura (*phýsin*) egokia (*oikeían*) dela eta, ona (*agathón*) da; baina, hala ere, plazer oro ez da hautatu beharreakoa. Modu berean, sufrimendu oro txarra da; baina,

gaitzetsiko lituzke, izan ere, etengabe aktoan dauden plazerak lortzea ez dago gure esku, ez da erraza eta hainbat gaitz eta oinaze sortu ditzake.

- 60 Kontuan izan «*télos*» hitz grekoak «helburu» aditzera emateaz gain, besteak beste «amaiera» eta «helmuga» ere iradoki ditzakeela. Itzulpenean ezin izan dugu aberastasun hori mantendu.
- 61 Behaketari esker Epikurok ikusten du, adibidez, animaliek eta haurrek berez bilatzen dutela plazera. Hain zuzen horregatik, Samoseko filosofoak aldarrikatzen du plazera naturala zaigula eta, horretaz gain, hura dela gauzak ebaluatzeko irizpide (*kánon*) gorena.
- 62 Kontuan hartu behar da Epikurok «*kánon*» terminoa erabiltzen duela, besteak beste bere logika edo ezagutzaren teoriari erreferentzia egiteko. Hain zuzen, gai horren inguruan idatzi zuen testu bakarrak *Kanonika* edo *Irizpidearen inguruan* du izenburutzat. Edonola ere, testuingurua kontuan hartuta, pasarte honetan argi dago hitzak *irizpideari* egiten diola erreferentzia.

hala ere, sufrimendu oro ez da naturaz beti baztertu beharrekoa.⁶³

[130]

Beraz, beti komeni da (*kathékei*) kontu horiek guztiak ebaluatzea (*krínei*) euren onurak (*sympherónton*) eta kalteak (*asymphóron*) zeintzuk izango diren konparatiboki neurtuz (*symmetrései*) eta behatuz.⁶⁴ Izan ere, batzuetan ongia (*agathôî*) gaitzatzat (*kakôî*) jotzen dugu (*kh rômetha*) eta beste batzuetan, aldiz, gaitza, ongitzat.

Autarkia (*autárkeian*)⁶⁵ ere ongi handia dela pentsatzen dugu, baina ez gauza gutxiz baliatzeko beti, baizik eta, gauza askorik ez dugunean, gutxirekin ere ase izateko (*arkómetha*). Izan ere, benetan sinetsita gauden oparotasunaz (*polyteleías*) modu atsegingarriean (*hédista*) gozaten dutela (*apolaúsousyn*), hain justu, oparotasuna gutxien behar dutenek. Era berean, sinesten dugu erraz aurkitzen dela naturala den oro eta nekez, aldiz, hutsalak baino ez diren gauzak. Eta,

63 Aurrerago ikusi dugun moduan, plazera «printzipioa (*arkhén*) eta helburua (*télos*)» da. Hots, ekintza oro plazeraren arabera neurtzen den heinean eta dena plazerari begira egin behar den heinean, gure erabakiek ez dute soilik kontuan hartu behar berehalakoa den plazera, baizik eta baita ere gure erabakien ondorioz jasango ditugun atsegin eta atsekabeak. Hau da, epikureismoak aldarrikatzen du komeni dela kalkulu bat egitea, zeinaren helburua —helmuga— den bizitarik zoriontsu edo atseginena. Horretarako, prest egon behar dugu zoriontasunerako eta atseginerako *bitartekoak* diren ekintzak hautatzera. Adibidez, hasiera batean dieta egokia egitea edo hainbat ariketetara ohitzea desatsegina izan daitekeen arren, horiek egokitzen joko dira baldin eta plazerik handiena sortuko dutela ikusiko bagenu.

64 Hurrengo pasarteetan argi eta garbi geratuko da norbait jakintsua dela eta zoriontsu bizi dela, baldin eta onura eta kalte iturriak izango diren horiek egoki *neurtu* edo *kalkultatzen* baditu.

65 Epikureismoan, beste eskola helenistiko nagusietan bezala —hots, zinismoan eta estoizismoan—, autarkia (*autárkeia*) bertute handienetarikoa da. Gizaki jakintsuak —autarkikoak— oso gutxiren premia du eta gai da bere kabuz premia horiek asebetetzeko.

horretaz gain, jaki (*khyloí*) xeheek, goseak (*éndeian*) eragindako sufrimenduaz libratzen gaituzten guztietan, otordu oparoek bezainbeste plazer eragiten dutela.

[131]

Eta baita ere ogiak eta urak plazerik biziena (*akrotáten*) sortzen dutela gose den norbaitek baliatzen dituenean. Beraz, dieta xume eta ez oparoetara ohitzea osasunari begira funtsezkoa (*symplerotikón*) da. Izan ere, ohitura horrek gizakia prestatzen du bizitzaren premiazko beharrei erantzuteko, noiz edo noiz aurkezten zaizkigun gauza oparoekiko hobe paratzen gaitu, eta zoriaren (*týkhen*) aurrean ikaragaitzak (*aphóbous*) egiten gaitu.

Bada, plazera helburua (*télos*) dela diogunean, ez gara libertinoen edota gozatze hutsean datzan plazeraz ari, ezjakin (*agnooúntes*) batzuek uste dutenaren kontra, edo gurekin ados ez daudelako edo gaizki ulertu digutelako; aitzitik, gorputzaren sufrimendu (*algeîn*) ezaz eta arimaren aztoratze (*taráttesthai*) ezaz ari gara.

[132]

Izan ere, mozkorraldi eta parranda etengabeek, mutil koskor eta emakumeez gozatzeak, edo arrainez eta bestelako jakiz hornitutako mahai oparoek ez dute bizitza atsegina (*hedýs*) sortzen; aitzitik, hautatze eta baztertze oren kausak ikertzeko gai den eta arimengan nahasmen (*thórybos*) handiena sortu dezaketen usteak (*dóxas*) uxatzeko gai den arrazoimen (*logismós*)⁶⁶

66 Jakintsu epikurearra, funtsean, plazeraren eta oinazearen gaineko kalkulu egokia egiten duena da. Horregatik, «*logismós*» berbak aditzera ematen du *arrazoimena*, baina baita *kalkulua* ere. Arrazoimena egoki erabiltzea, hein handi batean, (plazer eta oinazeen gaineko) kalkulu hoberenak egitearen baliokide litzateke.

neurridunak (*néphon*) sortzen du, hain zuzen, bizitza atsegina.

Zuhurtzia (*phrónesis*)⁶⁷ da kontu horien guztien printzipioa (*arkhé*) eta ongirik (*agathón*) gorena. Horregatik ere filosofia bera baino preziatuagoa (*timióteron*) da. Zuhurtziak naturalki sorrarazten (*pephýkasin*) ditu gainerako bertute (*aretai*) guztiak, eta hark irakasten digu ez dagoela bizitza atsegingarri (*hedýs*), eder (*kalôs*) eta justurik (*dikaíos*) modu zuhurrean bizi gabe, [ez eta bizitza zuhur, eder eta justurik ere] modu atsegingarrian (*hedýs*) bizi gabe. Izan ere, bertuteak naturalki daude lotuta (*sympephýkasi*) atseginez (*hedéos*) bizitzeari eta atseginez bizitzea ezin da bertuteengandik banandu.

[133]

Izan ere, jainkoen inguruko uste piatotsua (*hósia*) duen, heriotzaren aurrean beti jarrera sosegatua (*aphóbos*) duen, naturaren helburua konprenitu duen, ondasunen muga erraz asebate (*eusympléroton*) eta lortzen (*eupóriston*) dela dakien, eta gaitzen muga denboraz laburra edo zama txikikoa dela dakien pertsona baino inor hoberik badela uste al duzu zuk? Eta era berean, horrelakoa denak, jakintsuak, barre giten du pertsona batzuek gauza guztien jaun eta jabetzat (*despótin*) ipintzen duten horretaz ... [hots, Patuaz; aitzitik, jakintsuak aldarrikatzen du gauza batzuk halabeharrez (*anágken*) gertatzen direla,] beste batzuk zoriz (*týches*), eta beste batzuk guk geuk eraginda.⁶⁸ Izan ere, ikusten du halabeharra giza

67 Hemen «*phrónesis*» hitza bat etorriko litzateke «*logismós*» berbarean zentzuarekin. Zuhurtzia litzateke onura iturri izango den horren eta kalte iturri izango den horren gaineko kalkulu egokia egiteko gaitasun edo bertutea.

68 Pasarte honetan aipatzen dira Epikuroren aburuz giza mundua osatzen duten hiru elementuak: halabeharra (*anágke*), ausa edo zoria (*týche*) eta gure esku (*par' hemás*) dagoena.

eskumenetik kanpo (*anapeúthynon*) dagoela, zoria ezengonkorra dela eta guk geuk eragindako gauzek, aldiz, gu ez garen bestelako jaun eta jaberik ez dutela [adéspton]. Hain zuzen, soilik guk eragindako gauzak daude naturalki lotuta gaitzespenarekin eta haren kontrakoarekin.⁶⁹

[134]

Bada, hobe zen jainkoen inguruko mitoei men egitea filosofo fisikarien (*physikôn*) patuaren (*heimarménei*) esklabo izatea baino. Izan ere, lehenengo kasuan gurtzearen bidez jainkoen errukia lortzeko itxaropena irudikatzen zen bitartean, bigarreanean halabeharra ezinbestekotzat jotzen da. Gehiengoak (*hoi polloi*) uste duenaren kontra, jakintsuak aldarrikatzen du zoria ez dela jainko bat —jainko batek sortutakoa ezin baita ordenik gabekoa (*atáktos*) izan—, ez eta ziurgabea (*abébaios*) den kausa bat ere —ez baitu pentsatzen dohatsuki (*makaríos*) bizitzeari begira gizakiei ongiak (*agathón*) eta gaitzak (*kakón*) eman dizkienik zoriak, nahiz eta bai uste duen ongi eta gaitz handien abiapuntua eskaintzen duela zoriak—.

[135]

Jakintsuak uste du hobe dela zori txarra duen (*atykhêin*) baina ongi arrazoitzen duen (*eulogístos*) pertsona izatea, zori ona duen (*eutykhêin*) baina arrazoitzen ez duen (*alogístos*) pertsona izatea baino. Izan ere, hobe da ongi ebaluatu diren (*krithén*) ekintzek [zoria alde ez

69 «Haren kontrakoarekin», hau da, onespenearekin. Pasarte honetan, Epikurok berriz ere aditzera eman nahi du etikak eta ebaluazio moralak soilik gure esku dagoen horri eragiten diola. Halabeharrezkoa den horri dagokionean eta ausari dagokionean, aldiz, gizakiak ezin du ezer egin eta, beraz, ezin diogu horren inguruko ardurarik egotzi edo horri dagokionean bere ekintzak txalotu edo arbuiaitu.

izatea (*mè orthothênai*), ongi ebaluatu ez diren ekintzek zoria] alde izatea baino.

Beraz, gauza horiek guztiak eta eurekin lotuta daudenak azter itzazu (*meléta*) gau eta egun, bai zure buruarekin, bai zure antzekoak direnekin. Horrela eginez gero, sekula ez zara asaldatuko (*diatarakhthései*), ez esna, ez lo zaudela. Eta gizakien artean jainko baten antzera biziko zara.⁷⁰ Izan ere, ongi hilezkorren (*athanátois*) artean bizi den gizakiak ez du izaki bizidun hilkorren (*thnetôi*) antzik.

⁷⁰ Jakintsuak jainkoaren antza duela nahiko lelo zabaldua da garai helenistikoko eskoletan. Adibidez, estoizismoan eta zinismoan horren zantzuak aurki daitezke.

IRITZI NAGUSIAK

I.

Dohatsua⁷¹ (*makáron*) eta ustelezina (*áphtharton*) den horrek⁷² ez du arazorik izaten eta ez dizkio beste inori eragiten. Gauzak horrela, sumindurak (*orgaís*) eta atsegin eman nahiak (*khárisi*) ere ez dute harengan eraginik, izan ere, horrelako gauzak soilik ahularengan gertatzen dira.

II.

Heriotza guretzat ez da ezer. Izan ere, disolbatu den (*dialythén*) horrek ez du sentsaziorik (*anaistheteí*) eta sentsaziorik ez duena guretzat ez da ezer.

III.

Plazeren handitasunaren (*megéthous*) muga (*hóros*) da sufrimendu orotik askatzea (*hypexaíresis*).⁷³

71 Ik. 48. oin-oharra.

72 Hots, jainkoek.

73 Argi dago hemen «handitasunaren muga»-k («tamainaren muga» gisa ere itzuli ahal dena) ez diola intentsitateari erreferentzia egiten; izan ere, plazeraren handitasun edo tamaina maximoak intentsitateari

Plazera (*hedómenon*) badenean, irauten duen bitartean, sufrimendua (*algoûn*) eta oinazea (*lypoúmenon*) ez dau-
de presente, ez eta bi horien nahasketarik ere.

IV.

Sufrimenduak (*algoûn*) ez du haragian⁷⁴ (*sarkí*) etengabe (*synekhôs*) irauten. Aitzitik, sufrimendu bizi-
nak (*ákron*) denbora laburrena irauten du; eta haragiari
dagokion atsegina gainditu baino egiten ez duen sufri-
menduak, aldiz, ez du egun askoz irauten. Urte luzez
irauten duten gaixotasunen kasuan, berriz, haragiak
sufrimendu baino plazer handiagoa bizitzen du.

V.

Ez da posible atseginez (*hedéos*) bizitzea modu
zuhur (*phrónimos*), eder (*kalôs*) eta justuan (*dikaíos*) bizi
gabe, ez eta modu zuhur, eder eta justuan ere atsegi-
nez bizi gabe.⁷⁵

egingo balio erreferentzia, horrek esan nahiko luke plazeraren gradurik handiena zerokoa litzatekeela, hain zuzen ere, plazera eta oinazerik eza berdina direlako. Aitzitik, ematen du «handitasunaren muga» esamoldeak bizitzako esparru anitzei egingo liekeela erreferentzia. Hau da, plazeraren handitasunaren muga litzateke ahal bezainbeste esparrutan —gorputzari dagokionean, arimari dagokionean, esparru sozialari dagokionean, etab.—, sufrimendurik ez pairatzea. Gainera, kontuan hartzen badugu sufrimendurik eza plazera dela, erabateko sufrimendurik eza plazerik handiena litzateke. Berriz ere, ematen du intentsitateaz baino, bizitzako hamaika esparrutat azar delako.

74 Hots, gorputzean.

75 Epikuroren arabera, plazera «printzipioa (*arkhén*) eta helburua (*télos*)» den heinean, atseginez eta zorionsu bizitzeko bertutetsuki bizi beharra dago, besteak beste zuhurtziaz, modu ederrean eta justuki; eta, era berean, bertutetsuki bizitzeko modu bakarra zorionsu bizitzea da, hots, plazeraren irizpidearen arabera. Hau da, etika epikurearraren kasuan, bertutearen eta plazeraren artean nolabaiteko bat etortzea existituko litzateke. Alabaina, kontuan izan bertuteak eta plazera ez direla zehatz-mehatz gauza bera; plazera ez bezala, bertuteak ez dira berez onak, baizik eta onak direla bizitza atseginarenean iturri irmo eta sendoa direlako. Hau da, «bertuteak ez dira berez hautatzen, plazeragatik baiziki,

VI.

Gizakiengandik babestuta egote (*tharreîn*) aldera, naturalki sortu ziren boterea (*arkhês*) eta erregetza (*basiléias*); horien bidez baliteke inoiz pertsonaren batek salbu egotea lortu izana.⁷⁶

VII.

Batzuek ospetsuak (*éndoxoi*) eta miretsiak (*periblêpetoi*) izan nahi dute, horrela jendearekiko seguru (*aspháleian*) bizitzea lortuko dutelakoan. Hortaz, euren bizitza segurua bada, ongi natural bat lortu dute; aldiz, segurua ez bada, ez dute erdietsi hasieratik lortu nahi zutena, hau da, euren naturari egokitzen zaion ongia.

VIII.

Berez, plazer bat bera ere ez da txarra (*kakón*). Alabaina, plazer batzuen eragileek⁷⁷ (*poietiká*) plazer baino askoz enbarazu (*okhléseis*) gehiago sorrarazten dituzte.⁷⁸

medikuntza osasunagatik hautatzen den modu berean» (Diogenes Laerzio, X, 138). Beste behin, agerikoa da zuhurtziaren garrantzia bizitza ona zertan den ulertu eta unean une gauzak modurik egokienean neurtu eta hautatzeko.

76 Seigarren eta zazpigarren *Iritzi nagusietan* agerian geratzen da naturala dela segurtasuna bilatzea, hots, hurkoarekiko beldurtuta ez bizitze nahia. Zentzu horretan, botere politikoa eta ospea bilatzea ez da naturaren kontrakoa inondik inora; nolabait, gure behar natural batzuei erantzuten die. Ordea, ikuspegi epikurearrak agerian utzi nahi du —beste hainbat testutan— boterea, ospea eta abarrak desiratzea hutsala dela, izan ere, horiek ez dira segurtasunaren, beldurrik ezaren eta oinazerik ezaren berme. Are gehiago, desira hutsal horiek hamaika samin sortzen dituzte, Epikuroren ustez. Hau da, filosofiak eta zuhurtziak agerian uzten dute gure behar naturalak asebetetzeko bide eskas bezain desegokiak direla botere- eta ospe-nahia.

77 Hau da, kausek.

78 Beste behin, agerian geratzen da Epikurok ez duela eskatzen atseginak diren gauzak baino ez egitea. Plazera —oinazerik eza barne— eta zoriontasuna dira printzipio eta helburu gorenak, baina zorionsu eta atseginez bizitzeko kalkulu egokiaz baliatu beharra daukagu, zeinak agerian uzten duen badirela hainbat plazer gerora min handien kausa

IX.

Plazer guztiak [espazioan] eta denboran kondensatuko balira, eta organismo (*áthroisma*) osoan zehar edo gure naturako atal nagusietan presente baleude, orduan plazerak ez lirатеke elkarren artean bereiziko.⁷⁹

X.

Libertinoen plazeren eragileak diren gauzek baretuko balituzte (*élye*) pentsamenduak zeruko fenomenoekiko, heriotzarekiko eta sufrimenduekiko dituen beldurrak (*phóbous*), eta horretaz gain desiren muga irakatsiko balute, orduan sekula ez genituzke libertinoak gaitzetsiko, zeinak alde alde (*pantakhóthen*) plazerez asebeteta (*ekplerouménous*) egongo lirатеkeen eta sufrimenduetatik (*algoûn*) zein oinazetatik (*lypouménon*) erabat aske leudekeen; izan ere, horretantxe —hots, sufrimenduan eta oinazean— datza gaitza (*kakón*).⁸⁰

izango direnak eta, aldiz, hainbat ekintza desatsegin zeinak plazer iraunkor handien iturri izango diren.

79 Pasarte honetan Epikurok hipotesi moduko bat plazaratzen du: organismo (*áthroisma*) osoan zehar, hots, arimak eta gorputzak osatzen duten atomoen elkarketan, plazerak era eta aldi berean barreiatuak baleude, orduan plazer mota desberdinik ez legoke. Ordea, Epikurorentzat plazerak ez dira modu berean sakabanatzen gure organismoan, besteak beste modu argian bereizi ditzakegulako arimaren eta gorputzaren plazerak, zeintzuek *kokapen* desberdina duten, hots, atomo (mota) desberdinetan sentitzen diren. Beraz, epikurearrentzat plazer mota desberdinak existitzen dira eta bereiz daitezke. Horretaz gain, plazerak desberdinu daitezkeen heinean, plazer guztiak berez onak diren arren, ez dugu beti edozein plazer hautatu behar.

80 *Iritzi nagusi* honek, beste behin, hipotesi bat mahaigaineratzen du, zeina okertzat jotzen duen. Hiptesia faltsua da, izan ere, gorputzaren plazerak ez dute arimaren lasaitasuna eragiten ez eta plazeraren muga zein den irakasten. Horregatik, hedonismo epikurearra ez da etengabeko plazer materialekin lotzen. Aitzitik, eskola helenistiko honek bizitza libertinoa arbuatzen du, izan ere, hamaika gaitz eragiten dizkio horrela bizi den pertsonari, funtsean, atsegin baino atsekabe handiagoa sorraraziz.

XI.

Zeruko fenomenoen eta heriotzaren –guretzat inoiz ezer izango ote den— inguruko errezeloek (*hypopsía*), eta horretaz gain sufrimenduen eta desiren mugak zeintzuk diren ez ezagutzeak enbarazu egingo ez baligute, orduan ez genuke natura ikertzeko (*physiología*) premiarik izango.⁸¹

XII.

Oсотasunaren (*sympantos*) natura⁸² ezagutu gabe ez da posible kontu nagusiekiko beldurra baretzea eta, halakoetan, mitoek kontatutako gauzaren batekiko errezeloa (*hypopteúonta*) inposatzen da. Beraz, natura ikertu (*physiología*) gabe ez da posible plazer puruez gozatzea.⁸³

XIII.

Jendearekiko segurtasuna (*aspháleian*) lortzea ez da onura (*óphelos*) bat, baldin eta zeruko, lurrazpiko eta, oro har, infinituan gertatzen diren gauzekiko errezeloz (*hypópton*) bizi bagara.

XIV.

Jendearekiko segurtasuna, hein handi batean, botere sendo batek eta aberastasunak (*euporía*) sortzen

81 Pasarte honek agerian uzten du natura ikertzea (fisika) beharrezkoa dela, preseski, naturaren gaineko ezjakintasuna hamaika atsekaberen iturri delako. Hau da, ikerketa teoriko hori egokia da, hain zuzen, hari esker hainbat superstizio eta beldur antzuek libratzen garelako, hots, hobe bizitzen laguntzen digulako. Ordea, Aristotelesek eta beste batzuek ez bezala, Epikurok ez du uste natura ikertzea bere horretan —hots, teoria hutsa egitea— ona denik; epikurearrentzat teoria egitea soilik da ona zorientasunerako bidean lagungarria suertatzen zaigun heinean.

82 Hau da, existitzen diren gauza guztien edo unibertsoaren natura.

83 Beste behin, filosofiaren balioa bere erabilgarritasunean datzala azpimarratzen da. Filosofiari esker, kanonika eta fisika barne, hobe bizi gara. Hots, nolabait kanonika eta fisika etikaren zerbitzura leudeke.

dute; segurtasunik benetakoena, aldiz, bizitza lasaiak (*hesykhías*) eta gehiengoarekiko (*tôn pollôn*) urruntzeak dakarte.⁸⁴

XV.

Naturaren araberako aberastasuna (*plouîtos*) mugatua da (*hóristai*) eta eskuratzen erraza (*eupóristos*); iritzi hutsalen araberako aberastasuna, aldiz, mugagabea (*ápeiron*) galtzen da.⁸⁵

XVI.

Zoriak denbora tarte txikiz du jakintsuarengan (*sophôi*) eragina. Bere kasuan, gauzarik garrantzitsuenak eta nagusienak arrazoimenak (*logismós*) kudeatu baititu (*dióikeke*), eta bere bizitzan zehar arrazoimenak (*logismòs*) etengabe kudeatzen eta kudeatuko baititu.⁸⁶

XVII.

Justua den pertsona, era berean, pertsona lasaie-na (*ataraktótatos*) da; aldiz, injustua den hura asaldura (*tarahês*) handienez gainezka egoten da.⁸⁷

84 Epikurok ohiko moralari kritika egiten dio. Gehiengoak, hots, ezjakinen multzoak, uste du botere sendoa eta aberastasuna direla segurtasun iturri; ordea, segurtasunik handiena, egia esan, bizitza lasaiak eta gehiengoarengandik urruntzeak dakarte. Hau da, kanpo-segurtasuna garrantzitsua bada ere, are garrantzitsuagoa da barne-segurtasuna, zeinari oso pertsona gutxik erreparatzen dioten.

85 Pasarte honetan beste behin *autarkiaren* garrantzia mahaigaineratzen da. Jakintsua autoaskea —hots, autarkikoa— da, izan ere, oso premia gutxi dituen heinean, naturak horiek erraz asetzeko moduko baliabideak eskaintzen dizkio.

86 Pasarte honek jakintsuaren arrazoimena (*logismós*) eta zoria (*týkhe*) kontrajartzen ditu. Jakintsuaren kalkulatzeko eta epaitzeko gaitasunari esker, zoriak oso eragin txikia du berarengan.

87 Agerian geratzen da beste behin pertsonarik zorionsuena pertsona bertutetsuena dela; eta pertsonarik biziotsuena, aldiz, zorigaiztokoena.

XVIII.

Behin zerbaiten gabeziak (*éndeian*) eragindako sufrimenduaz (*algoûn*)⁸⁸ askatuta (*exairethêi*), haragiaren plazera ez da handitzen, baizik eta soilik koloreztatzen (*poikîlletai*). Eta pentsamenduak plazerari ezarri behar dion muga (*péras*) kontu horien eta horien antzekoen kalkuluak sortzen du, alegia, pentsamenduari beldurrik handienak ematen dizkioten horien kalkuluak (*eklógis*).⁸⁹

XIX.

Denbora mugagabeak (*ápeiros*) eta denbora mugatuak (*peperasménos*) plazer berdina dute, baldin eta norbaitek plazeraren mugak (*pérata*) arrazoimenaren (*logismôî*) bidez neurtzen baditu.

XX.

Haragiak plazeraren mugak mugagabetzat jotzen ditu eta soilik denbora mugagabe batek eskainiko

88 Zerbaiten gabeziak eragindako sufrimenduaren adibide dira gosea eta egarria. Hau da, testuak organismo bizi batek pairatzen dituen gabeziei egiten die erreferentzia.

89 Hirugarren *Iritzi nagusiak* defendatu du plazeren handitasunaren muga sufrimendu orotik askatzea dela. Harekin bat, oraingoan honakoa aldarrikatzen da: muga hori gainditzea posible ez den heinean —hots, sufrimendurik ezaren plazera ezin denez gainditu—, behin plazer maila hori lortuta, gehienez jota bizitzen ari garen plazera *koloreztatu* dezakegula. Hau da, plazer *katastematikoa* (ik. 59. oin-oharra) lortzen denean, hau da, organismoaren gabeziarik eza lortzen denean, plazera ezin da handitu, baina kualitatiboki edertu edo apaindu daiteke, nolabait, plazer mota ezberdinei esker. Beraz, emango luke esaten ari zaigula plazer *zinetikoak* edo desirekin lotutako plazerek ez dutela sufrimendurik ezan datzan plazera handitzen, baizik eta, gehienez jota, koloreztatzen; adibidez, gose garenean ogi soila beharrean jaki goxoa jango bagenu, ez genuke ogia jaten duen pertsonak baino plazer handiagorik biziko, *koloretsuagoa* baizik. Horregatik, beste behin agerikoa da plazeren *mugaketak* Epikuroren filosofian duen garrantzia. Desirak mugagabeak izan badaitezke ere, plazera mugatua da beti. Horregatik, komeni da desirak ere mugatzea, hutsalki ez sufritzeko. Ideia hori hogeita batgarren *Iritzi nagusian* berriz ere errepikatzen da.

lioke (*pareskeúasen*) plazer mugagabea. Ordea, arrazoi-menari esker haragiaren helburuez (*télous*) zein mugaz jabetuta eta eternitatearekiko (*aiōnos*) beldurrak uxatuta, pentsamenduak (*diánoia*) bizitza bikaina (*pantelē*) sustatzen du eta denbora mugagabearen premiarik ez du.⁹⁰ Halaber, pentsamenduak ez du plazera baztertzen, eta, egoerak heriotzaren aurrean paratzen duenean, ez du arranguraz atzera begiratzen (*katéstrep-sen*), bizitza onenerako zer edo zer falta izan zaiolakoan (*elleípousa*).⁹¹

XXI.

Bizitzaren mugak ezagutzen dituen (*kateídós*) pertsonak badaki (*oíden*) lortzen erraza (*eupóriston*) dela, bai gabeziak (*éndeian*) eragindakako sufrimendutik (*algoûn*) askatzen gaituena,⁹² bai bizitza bere osotasunean bikaina egiten duena. Horregatik, pertsona horrek gatzaka (*agónon*) iturri diren gauzen premiarik ez du.

XXII.

Emana zaigun (*hyphestekós*) helburua (*télou*) eta gure usteen (*doxazómena*) euskarri den ebidentzia (*enárgeian*)⁹³ oro aztertzea (*epilogízzesthai*) beharrezkoa

90 Jakintsuaren autarkia, hain justu, bere desiren mugaketarekin oso estuki lotuta dago. Jakintsuak badaki bizitza beteenak —hots, bikainenak— ez duela denbora mugagaberik behar, ez eta plazer mugagaberik ere ez.

91 Hemezortzigarren, hemeretzigarren eta hogeigarren *Iritzi nagusiak* helburutzat dute irakurlea hilezkortasun nahiaz askatzea. Horri begira, hiru pasarteek arrazoimenaren garrantzia aldarrikatzen dute, hain zuzen, hari esker ikasten dugulako, alde batetik, gure desirak mugatu behar ditugula, eta, bestetik, gure plazer eta bizialdi mugatuaz ahalik eta hoberen gozatzen. Zentzu horretan ere, beste behin agerian geratzen da jakintsuak plazeraren intentsitate edo luzerari baino, haren kalitateari erreparatzen diola, betiere oinazetik eza plazer handiena dela kontuan hartuz.

92 Hau da, plazer *katastematikoa*.

93 *Menekeorentzako gutuna* testuko 123. pasartean bezala, «ebidentzia» (*enárgeia*) hitza edo harekin lotutako termino bat dugu irakurgai. Epikureismoan kontzeptu garrantzitsua da, izan ere, ebidentea dena,

da. Bestela, gauza guztiak zalantzaz (*akrisías*) eta asal-
duraz (*tarakhês*) beteta egongo dira.⁹⁴

XXIII.

Sentsazio (*aisthêsesin*) guztiei kontra egiten (*makhêi*) badiezu, engainagarritzat (*diepseûsthai*) jotzen dituzun sentsazioak ebaluatzeko erreferentzia puntu-rik ere ez duzu izango.⁹⁵

XXIV.

Sentsazioren bat besterik gabe alde batera uzten baduzu eta ez badituzu bereizten (*diairêseis*), alde batetik, behin-behinean (*prosménon*) uste duzuna (*doxazómena*) eta, bestetik, sentsazioan (*aísthésin*), afekzioetan⁹⁶ (*páthe*) eta pentsamenduaren (*dianoías*) errepresentazio (*phantastiké*) bidezko antzemate (*epibolén*) orotan dagoeneko presente dagoena, orduan bestelako sentsazioak ere iritzi (*dóxei*) zentzugabeekin (*mataíoi*) nahaspilatuko (*syntáraxeis*) dituzu eta irizpide (*kritérion*) oro alde batera utziko duzu. Eta ziurtzat (*bebaióseis*) jotzen badituzu zure usteetan (*doxastikaís ennoíais*) behin-behinekoa den oro eta baieztatu (*epimartýresin*) ez dena, engainua (*diepseusménon*) ez duzu saihestuko, izan ere, anbiguotasun (*amphibétesin*) erabatekoa mantendu izango

hots, hautemate zuzenaren bidez ezagutzen duguna, egiazkoa da beti, modu zuzenean horrela delako *de facto*. Faltsua dena, aldiz, gure lotura mental eta ondorioztapen okarren ondorio baino ez da, hau da, guk hautemate zuzenei *gehitzen* diegun zerbaiten ondorio.

94 Jakintsuari berezkoa zaion arimaren lasaitasuna (*ataraxía*) lortzeari begira, arrazoibide zuhurrak (hots, filosofiar berezkoa zaion kalkulua) berebiziko garrantzia du.

95 Afekzio —edo pasio— (*páthos*) eta aurreulerkerekin (*prólepsis*) batera, sentsazioa (*aísthésis*) dugu egiazen irizpide nagusietako bat.

96 Afekzioak bi dira, plazera eta sufrimendua. Epikurok afekzioak ere egiazen irizpidetzat jotzen ditu, izan ere, horien arabera ebaluatu behar ditugu hautatze eta baztertze egokiak, hots, giza ekintza zuzenak zeintzuk diren (ik. Diogenes Laerzio, X, 34).

duzu (*teterekós*) zuzena den eta zuzena ez den horren artean epaitzerako (*krisin*) garaian.⁹⁷

XXV.

Egiten dituzun gauza guztiak ez badituzu zuzentzen (*epanoíseis*) naturaz (*phýseos*) dagokigun helbururantz (*télos*), baizik eta, dela iheska, dela harripaketan, bestelakoa den zerbaiterantz bideratzen badituzu, orduan zure ekintzek (*práxeis*) ez dute zure arrazoibideekin (*lógois*) bat egingo.⁹⁸

XXVI.

Asebetetzen ez direnean sufrimendurik eragiten ez duten plazerak ez dira beharrezkoak; aitzitik, [lortzen] zailak direnean edo kalte (*blábes*) iturri izan daitezkeela uste dugunean, horien guramena (*órexin*) disolbatzen erraza da.

XXVII.

Bizitza dohatsuari (*makarióteta*) begira jakituriak (*sophía*) prestatzen dituen gauza guztien artean, ezbairik gabe, orotan handiena laguntasuna (*philías*) da.

97 Kontuan hartzen badugu «pentsamenduaren errepresentazio bidezko antzemate» esamoldea «aurreulerkera» terminoaren baliokidetzat ulertu behar dela, Epikurok beste behin egiazen irizpide nagusiak aipatzen ditu: 1) *sentsazioa* da, hain zuzen, munduko errealitateek gugan sortzen duten eragina hautemateko dugun gaitasuna; 2) *afekzioa* — edo *pasioa*— litzateke hautemate horiek gugan eragiten dutena; 3) *aurreulerkerak*, aldiz, iraganako hautemateek orainaldian gugan sortzen dituzten aurretiazko ezagutzarako joerak. Sentsazioak, afekzioak eta aurreulerkerak ezagutzaren irizpide dira, hiruak egiazkoak direlako beti. Ordea, *Iritzi nagusi* honen bigarren atalean aipatzen diren epaiak egiazkoak ala faltsuak izan daitezke. Hain zuzen, faltsuak dira, irizpideon ebidentzia erabatekoa ez den kasuetan, dugun ebidentziari iritzia gehitzen diogunean esperientziaren baieztapenik kontuan hartu gabe.

98 Gure ekintza ororen irizpidea naturaz dagokigun irizpidea izan beharko litzateke, hots, sufrimendurik ezan eta lasaitasunean datzan zoriontasuna. Irizpide horri ongi heltzen ez dionak eta arrazoimenari esker ekintza guztiak horrantz bideratzen ez dituenak ez du ongi bizitzea lortuko.

XXVIII.

Beldurgarria (*deinón*) den ezer eternoa (*aíonion*) edo iraupen oso handikoa ezin dela izan ikustera hauspotzen gaituen (*tharreîn*) ezagutza (*gnóme*) berak, era berean, argi du (*kateîde*), bizitza mugatua bada ere ere, laguntasunari esker segurtasuna egoki gauzatzen dela.⁹⁹

XXIX.

Desiren artean batzuk naturalak eta [beharrezkoak] dira; beste batzuk, naturalak eta ez beharrezkoak; eta badira beste batzuk ez direnak naturalak ez eta beharrezkoak ere, baizik eta iritzi (*dóxan*) hutsaletik (*kenén*) sortuak.¹⁰⁰

XXX.

Betetzen (*syntelesthôsin*) ez direnean sufrimendurik eragiten ez duten desira naturalen artean, batzuk grin (*spoudé*) sutsuak (*sýntonos*) dira, zeinak iritzi hutsalak sortzen dituen. Desira horiek ez desagertzearen (*diakhéontai*) kausa ez da euren natura, giza hutsalkeria (*kenodoxían*) baizik.¹⁰¹

99 Hogeita zazpigarren eta hogeita zortzigarren *Iritzi nagusi*ek argi uzten dute laguntasunak duen berebiziko garrantzia. Epikurearren laguntasunaren gakoa ez datza Aristotelesek aldarrikatutako jakituria teoretikoan, jakituria praktikoan baizik. Banakoak hirian pairatu dezakeen isolamenduarekin, babes faltarekin eta arrotzasunarekin kontrajarrita, laguntasuna zorion eta plazer iturri nagusietako bat da, besteak beste lagunek elkarri eskaintzen dioten gertutasunari, laguntzari, arrimuari eta segurtasunari esker.

100 Antzinako eskolio batek horrela iruzkintzen du *Iritzi nagusi* hau: «Epikurok natural eta beharrezkotzat jotzen ditu sufrimendua ezabatzen duten desirak, egarri garenean edatearena kasu; natural eta ez beharrezkotzat, aldiz, sufrimendutik askatu gabe plazera koloreztatzen dutenak, jaki oparoena kasu; ez natural ez eta beharrezkotzat ere, aldiz, koroen eta estatuen eskaintzena kasu».

101 Badira desira natural ez beharrezkoak. Horrelako desiren iraukortasunaren kausa ez da berezkoa, gizakien iritzi hutsalak baizik. Beraz, ezagutzari esker posible da horrelako desirengandik askatzea.

XXXI.

Naturaz justua da onura (*symphérontos*) irizpideztat duen kontratu (*sýmbolon*) baten arabera bizitzea, hain zuzen, batak besteari kalterik ez egiteko (*bláptein*) eta batak bestearengandik kalterik ez jasotzeko (*bláptesthai*).¹⁰²

XXXII.

Batak besteari kalterik ez egiteko eta batak bestearengandik kalterik ez jasotzeko akordiorik (*synthékas*) sortzeko gai ez diren animalia guztiei dagokienean, ezer ez da justua ez eta injustua ere. Eta gauza bera esan daiteke batak besteari kalterik ez egiteko eta batak bestearengandik kalterik ez jasotzeko

102 Hogeita hamaikagarren, hogeita hamabigarren eta hogeita hamahirugarren *Iritzi nagusietan* Epikuroren estatuaren teoria edo zuzenbidearen teoria islatzen da. Pasarteotan argi geratzen da Epikurorentzat, Platonentzat ez bezala, justizia ez dela *berez* (Platonen terminologian, *kath' hautó* eta Epikurorean, *kath' heautó*). Platonen aburuz Forma edo Ideiak *berez* existitzen dira; aldiz, errealitate arruntak, (ez) existitzen den zerbait, hitzarmen baten ondorioa baizik. Banakoaren helburua zoriontasuna da, hots, plazer ahalik eta handienarekin eta oinaze ahalik eta txikianarekin lotzen den bizimodua. Ordea, bizitza zorionsua ezin da bakardadean erdietsi, besteekin bizitzeko premia dugu, hala nola besteengandik seguru bizitzeko premiari komunitatean bizitzea eskatzen baitu. Testuinguru horretan, «naturaz justua da» edo antzeko adierazpenak egiten dituenean, Epikuro ez da justizia natural —*berezkoa*, objektiboa eta aurrekonbentzionala den justizia— batez ari, baizik eta komunitatearen marko barruan eta giza naturaren eta bere helburuaren —zoriontasunaren— *arabera* justua den horretaz. Zerbait naturaz da justua baldin eta gure naturari, zeinak atsegina bizi eta oinazea saihestea bilatzen duen, egoki erantzuten badio. Hain zuzen, gure naturak plazera bilatzen duen heinean eta besteekin segurtasun egoeran bizi nahi dugun heinean, guztion *onuran* funtsatzen den hitzarmen soziala justua da, gure naturari beharrezkoak zaizkion bizi baldintzak eskaintzen dizkiolako. Gauzak horrela, guztion onura irizpidetzat duen marko politikoa naturaz justua da; ez haatik bere horretan (hau da, *berez*) edo modu naturalean justua delako, baizik eta, konbentzio bat izan arren, gure naturaren *arabera* eraikita dagoelako. Hau da, eskubide- edo zuzenbide-sistemek, Epikuroren ustez, onuran funtsatutako hizarmenak edo akordioak izan beharko lukete.

akordioa (*synthékas*) sortzeko gai ez diren edo nahi ez duten herriei (*ethnôn*) dagokienean.¹⁰³

XXXIII.

Justizia ez da berez (*kath' heautò*) existitzen den zerbait. Aitzitik, justizia banakoen arteko elkarrekin-tzan gertatzen da, bata besteari kalterik ez egiteko eta bata bestearengandik kalterik ez jasotzeko akordioa (*synthékas*) tarteko den une orotan eta leku orotan.

XXXIV.

Injustizia ez da berez txarra; aitzitik, injustiziak zigortzen dituztenen aurrean oharkabean ez pasatzearen beldurrak egiten du txarra.¹⁰⁴

103 Pasarte honetan begien bistakoa da justizia eta eskubideak ez direla berezkoak edo naturalak. Natura egoera batean (hots, hitzarmen sozial edo akordio sozial jakin batek justizia *sortu* ez duen lekuan), ez dago ez justiziarik ez eta injustiziarik ere.

104 *Iritzi nagusi* hau hobe ulertzeko komeni da kontuan hartzea giza naturarentzako soilik plazera dela *berez* ona eta bakarrik oinazea eta mina direla *berez* txarrak. Edozein kasutan, argi eduki behar da oin-har honen lehenengo esaldian «*berez*» hitzek ez diotela erreferentzia egiten objektiboa, unibertsala eta betierekoa den zerbaiti, baizik eta giza naturaren *araberakoa* den zerbaiti. Garrantzitsua da fiabardura hau kontuan hartzea, izan ere, hogeita hamalaugarren *Iritzi nagusian*, litekeena da Epikurok Platonekin —edo platonismoarekin— egitea eztabaida. Platonen aburuz Justizia *berez* existitzen da, objektiboa eta unibertsala da eta *berez da ona*, hots, Platonentzat Justizia Forma edo Ideia bat da. Bada, Akademiaren sortzailearen ikuspegitik Justizia *berez* existitzen den eta *berez* ona den zerbait den heinean (eta hemen «*berez*» hitzak dagoeneko ez dio zerbaiten *araberakoa* den gauza bati erreferentziarik egiten, baizik eta *bere horretan* —*kath' hautò*— existitzen den zerbaiti), posible litzateke esatea injustizia objektiboa den zerbait dela eta *berez* txarra dela. Hain justu, Epikurok iritzi horren kontra jo nahiko luke. Horregatik, Epikurok esaten du gizakiok injustizia txartzat jotzen dugula ez *berez* txarra delako, baizik eta injustizia bat egiteak zigorra edo zigorraren beldurra dakartzalako, hau da, oinazea eragiten duelako. Jakina, gainerako *iritzi nagusiak* irakurtzen dituenak ulertuko duen moduan, baieztapen horrek ez du esan nahi Epikurorentzat justizia balio handirik ez zuenik edo injustizia gaitzesten ez zuenik, baizik eta justiziaren eta injustiziaren balio politikoa eta morala ebaluatzen dugula horiek sortzen duten plazer eta minaren arabera.

XXXV.

Batak besteari kalterik ez egiteko eta batak bestearengandik kalterik ez jasotzeko akordioaren (*synéthento*) kontrako zerbait ezkutuka egiten duenak ezin du sinetsi oharkabeen pasako dela, nahiz eta unean une (*paróntos*) milaka aldiz oharkabeen pasatzea lortuko balu ere. Izan ere, ez da begien bistakoa (*ádelon*) heriotza bitarte oharkabeen pasako denik.

XXXVI.

Ikuspegi orokor batetik, justua dena guztiontzat berdina da; izan ere, elkarbizitzarako (*alléous koinoníai*) onuragarria (*symphéron*) den horretan datza. Ordea, herrialde baten (*khóras*) berezitasuna eta unean uneko (*dépote*) kausak (*aitíon*) kontuan harturik, ezin da ondorioztatu justua dena guztiontzat berdina denik.¹⁰⁵

XXXVII.

Justutzat jotzen diren gauzen artean, elkarbizitzarako (*alléous koinonías*) premiazkoak diren aferetan baieztatu bada (*epimartyroumenon*) zerbait onuragarria (*symphéron*) dela, bada, zerbait horrek justuaren estatua (*khóran*) du, bai guztiontzat berdina denean, bai guztiontzat berdina ez denean. Ordea, inork legeren

105 Pasarte honek egoki islatzen du ez dagoela berezkoa, objektiboa eta unibertsala den justiziarik, konbentzionala den justizia baizik. Justua da, bere natura kontuan hartuta, giza komunitate bateko kideentzat onuragarria dena. Ordea, komunitate bakoitzaren baldintza eta unean uneko egoeren arabera, justua —eta onuragarria dena— ez da beti gauza bera, baizik eta aldakorra den eta egoeraren arabera moldatzen den zerbait. Gainera, kontuan hartu behar da Epikurorentzat gizaki guztion natura berdina izanagatik ere, eskualde bakoitzeko ezaugarriek gizakiengan eragina dutela, zeinak eragiten duen, hala nola herri bakoitzak izaera eta bereizgarri propioak edukitzea. Horrek, unean une *onuragarritzat* jotzen dena aldarazi dezake eta, beraz, baita ere *naturaz justua* dena.

bat ezartzen badu (*thêtai*) eta ez bada elkarbizitzarako onuragarria, orduan lege soil horrek ez du justuaren natura (*phýsin*) izango. Eta justuaren arabera onuragarria den hori aldatuko balitz, baina denbora tarte jakin batez aurreulerkerarekin (*prólepsis*) bat etorriko (*enarmóttei*) ez balitz, horrek ez luke esan nahiko denbora tarte jakin horretan justua izan ez denik errealitateari (*prágmata*) berari erreparatzen diotenentzat eta hitz (*phonaís*) hutsalek nahaspilatzen (*syntaráttousin*) ez dituztenentzat.¹⁰⁶

XXXVIII.

Unean uneko (*periestóton*) baldintza berririk sortu ez den lekuan, gertakariak (*érgon*) beraiek agerian utziko balute justutzat jotzen dena justuaren aurreulerkerarekin (*prólepsin*) bat ez datorrela (*harmóttonta*), orduan justutzat jotzen dena ez da benetan justua izango. Aldiz, unean uneko baldintza berriak sortu diren lekuan, justutzat ezarritakoa dagoeneko onuragarria (*synéphere*) ez bada, orduan justutzat ezarritakoa justua izango zen herrikideen elkarbizitari (*alléλους koinonían*) begira onuragarria zen bitartean, baina, horren ostean, onuragarria izateari utzi dionean, ez da justua izango.¹⁰⁷

106 Beste behin, argi geratzen da naturaz justua dena konbentzionala eta aldakorra dela, hain zuzen, gizarte bakoitzaren baldintzak aldatzen diren heinean onuragarritzat jotzen dena ere aldatu daitekeelako. Beraz, leku eta une jakin batean iraganean justua zen zerbait dagoeneko justutzat ez jotzeak ez du esan nahi bere garaian justua izan ez zenik.

107 *Iritzi nagusi* honen hasieran ideia interesgarri bat dago: justizia beti akordio baten ondorio izanagatik ere —hots, konbentzionala izanagatik ere—, posible da *benetan* justua dena eta *benetan* justua ez dena desberdintzea. Hau da, justiziaren konbentzio guztiak ez dira egiaziak edo *naturalak*. Konbentzio legal bat soilik da benetakoa edo naturala —egokia—, giza naturarentzako onuragarria dena irizpidetzat duenean eta unean uneko baldintzetara egoki moldatzen denean.

XXXIX.

Bere burua hoberen paratu duen pertsona kanpo-gauzekiko (*éxothern*) mesfidantza edukitzeko (*mè tharroûn*), alde batetik, posible den gauzekin (*dynatá*) aliantzak (*homóphila*) eratzen ditu eta, beste aldetik, posible ez den horiekin, behintzat etsaiturik (*allóphyla*) ez da egoten. Eta hori egitea ere posible ez den gauza guztiei dagokienean, horiengandik aldentzen da eta bere ekimenerako (*práttein*) komenigarria den (*elysitélei*) oroz baliatu egiten da (*exereísato*).¹⁰⁸

XL.

Gertukoengandik (*homorroúnton*) ahal bezain babes egoera (*tharreîn*) handiena lortzeko gaitasuna (*dý-namin*) izan duten guztiek, era berean, beraien artean modurik atseginean (*hédista*) bizi dira, konfidantza (*pístoma*) ziurrena (*bebaiótaton*) edukita; eta intimitate (*oikeióteta*) beteena partekatzeagatik ere, ez dute auhen egiten, gauza errukarria (*héleon*) balitz bezala, norbait goizegi hiltzen denean (*prokatastrophén*).¹⁰⁹

108 Ematen du *Iritzi nagusi* honetan, alde batetik, autarkiaren ideia nabarmentzen dela eta, bestetik, laguntasunarena. Jakintsuak kanpo-munduarekiko (beste pertsonak barne) itxaropen antzurik ez du eta ez du gauza gehiegirik behar. Edonola ere, jakintsuak lagunak egiten ditu —aliantzak eraikitzen ditu— ahal bezainbeste eta, laguntasuna posible ez denean, etsaigo erlazioak saihesten ditu. Gainera, baldin eta pertsona batzuekin etsaigoa ekiditea ezinezkoa suertatzen bazaio, orduan pertsona horiekiko tratua al bait gehien murrizten du.

109 Pasarte honek agerian uzten du marko politikoak sustatu beharko lituzkeen justizia naturala baino babes eta atsegín are eta handiagoak eskaintzen dituztela marko politiko barruan eratzen diren lagun taldeek. Laguntasunaren garrantzia zentrala da, hain zuzen ere, bizitza onerako beharrezkoak diren konfidantza eta ziurtasuna bultzatzen dituelako. Horretaz gain, epikurearren ustez, hura pairatzen duenarentzat heriotza ezer ez den heinean, lagun taldeetan heriotzak gertatzen direnean, horiek ez dira gehiegizko asalduraz bititzen.

BIBLIOGRAFIA HAUTATUA

- Aguirre, J. eta Lasa, C. (arg.), *Epikuro, Zorionari gutuna*, Donostia, Erein, 1995.
- Arrighetti, G., (arg.), *Epicuro, Opere*, Torino, Einaudi, 1967.
- Bignone, E. eta Giannantoni, G. (arg.), *Epicuro, Opere, Frammenti, Testimonianze sulla sua vita*, Bari, Laterza, 1966.
- Bieda, E., *Epicuro*, Buenos Aires, Galerna, 2016.
- Boeri, M. D. eta Balzaretti, L. R. (koord.), *Epicuro, Vida, doctrinas morales, testimonios*, Rosario, HyA ediciones, 2002.
- Bredlow, L. -A. (arg.), *Diógenes Laercio, Vidas y opiniones de los filósofos ilustres*, Zamora, Lucina, 2010.
- Brun, B. (arg.). *Épicure et les épicuriens*, Paris, Presses universitaires de France, 1964 [2. arg.].
- Cresson, A., *Épicure: Sa vie, son oeuvre, sa philosophie*, Paris, Presses universitaires de France, 1947.
- Diano, C. eta Diano, F. (arg.), *Epicuro, Scritti morali*, Milan, BUR, 1997.
- García Gual, C., *Epicuro*, Madril, Alianza, 1981.

- García Gual, C., Lledó, E., eta Hadot, P., *Filosofía para la felicidad: Epicuro*, Madril, Errata Naturae, 2013.
- Hicks, R. D., (arg.), *Diogenes Laertius, Lives of Eminent Philosophers*, Cambridge, Harvard University Press.
- Lasa, C eta Aguirre, J. (arg.), *Epikuro*, Zoriontasuna, Irun, Iralka, 1995.
- Morel, P.-M., (arg.), *Épicure, Lettre À Ménécée*, Paris, Flammarion, 2009.
- Usener, H. (arg.). *Epicurea*, Cambridge, Cambridge University Press, 2010. [1. arg. Leipzig, 1887].

